

GARAPENERAKO LANKIDETZA-
PROIEKTUETARAKO 2026KO DIRULAGUNTZA-
DEIALDIA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua



AURKIBIDEA

1. Dirulaguntzen ildoak	4
2. Baliabide ekonomikoak	4
3. Deialdiaren xedea	5
4. Deialdiaren atalak	5
5. Eskabideak zeinek aurkez ditzaketen eta zeinek ez	6
6. Proiektuen betekizun orokorrak	6
7. Zeharkako ikuspegiekin lotutako betekizunak	7
8. Deialdiaren lehentasunak	8
9. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zuzeneko kostuak	8
10. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak	9
11. Proiektuak aurkezteko prozedura	10
12. Dirulaguntzak emateko eta proiektuak balioesteko prozedura	10
13. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen	12
14. Dirulaguntza ordaintzea	13
15. Diruz lagundutako ekintzen jarraipena	13
16. Dirulaguntzak justifikatzea	13
17. Deialdian zenbatekorik soberan geratuz gero	14
18. UK atalaren xedea	15
19. UK ataleko lehentasunak	15
20. UK ataleko proiektuek bete beharreko berariazko betekizunak	15
21. Jarraipen-txostenak	16
22. UK ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren	16
23. UK ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	17
24. US atalaren xedea	18
25. US ataleko proiektuek bete beharreko berariazko betekizunak	18
26. Jarraipen-txostenak	18
27. US ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren	19
28. US ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	19
29. USA atalaren xedea	20
30. Proiektuak hautatzeko prozedura	20
31. 2027-2028 biurteko proiektuen betekizunak	21
32. Jarraipen-txostenak	22
33. Eskabideak noiz aurkeztu behar diren	22
34. USA ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	22
35. LT atalaren xedea	23
36. LT ataleko lehentasunak	23
37. Zein proiektu eta entitate aurkez daitezkeen LT atalera	23
38. LT ataleko behin betiko proiektuek bete beharreko betekizunak	23
39. Jarraipen-txostenak	24
40. LT ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren	24
41. LT ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	24
42. PT atalaren xedea	25
43. PT ataleko behin betiko proiektuek bete beharreko betekizunak	25
44. Jarraipen-txostenak	26
45. PT ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren	26
46. PT ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	26
47. GDLB atalaren xedea	27
48. GDLB atalaren lehentasunak	27
49. Ekintzak hautatzeko prozedura	27
50. GDLB ataleko proiektuek bete beharreko betekizunak	28



51. Jarraipen-txostenak	29
52. Noiz aurkeztu behar diren GDLB ataleko eskabideak	29
53. GDLB ataleko proiektuak balioesteko irizpideak	30



2026AN GARAPENERAKO LANKIDETZA-PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO GASTEIZKO UDALAREN DEIALDIA

Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

2026ko otsailaren 14an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2026. urtean garapenerako lankidetzaproiektuetarako dirulaguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia. Denek jakin dezaten argitaratzen da deialdi hori.

Hona hemen zer araubide juridiko aplikatuko den:

- 1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzarakoa
- 188/2025 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituena.
- Aurrekoek arautzen ez dituzten alderdietarako, 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, lege horren erregelamendua onesten duena.
- Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra (aurrerantzean, dirulaguntzen ordenantza), 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (88. zk.) argitaratua.

1. Dirulaguntzen ildoak

Dirulaguntzen lerro hau indarrean dagoen Dirulaguntzen (2025-2027) Plan Estrategikoaren barruan jasota dago; 24_06_v01f fitxa: Garapenerako Lankidetzako ekimenei eta proiektuei laguntzea

Eta, horren bidez, helburu hau erdietsi nahi da:

“Garapen bidean dauden herrialdeetan hainbat sektoreri dagozkien urteko edo urte anitzeko lankidetzaproiektuak egiteko laguntza.”

2. Baliabide ekonomikoak

2.1. Guztira 1.948.160,49 euro bideratuko dira garapenerako lankidetzaproiektuetarako deialdira, 2026ko udal aurrekontuko 2450 2391 4 8200 “Lankidetzarako dirulaguntzak” partidaren kontura.

2.2. Horretaz gain, 200.000,00 euro bideratuko dira Gasteizko Udal Urak SA (AMVISA) udal enpresaren lankidetzarako aurrekontuaren kontura —enpresaren administrazio-kontseiluak 2022ko azaroaren 24an onetsitako ekarpena—. AMVISAREN ekarpena uraren eta saneamenduaren arloko proiektuen US atalera eta ez bestetara bideratuko da.

2.3. Guztira, bada, 2.148.160,49 euro izango dira erabilgarri.

2.4. Baldin 2026an zehar 2450 2391 4 8200 partida (“Lankidetzarako dirulaguntzak”) zuzkitzen bada hasieran onartutako aurrekontua baino zenbateko handiagoarekin, edo deialdi honetako atalen batean soberakinik badago, organo kudeatzaileak bere esku izango du erabakitzea soberakina deialdiaren atal batean edo batzuetan aplikatzea, dagokion gastu-espeditentia izapidetuta dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik eta kreditu erabilgarria argitaratu ondoren deialdia argitaratu zen bitarteko berberetan, beste deialdi baten beharrik gabe.



3. Deialdiaren xedea

- 3.1. Deialdiaren xedea da 2022-2025 aldirako Garapenerako Lankidetzaren Gida Planaren esparru estrategikoari erantzuten dioten lankidetzak-ekintzak kofinantatzeko laguntzak ematea (Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko abenduaren 5eko ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez luzatu da plan horren indarraldia, harik eta eguneratu arte) – hemendik aurrera, «Gida Plan luzatua» –. Plan horrek Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzaren misioaren parte gisa definitzen du: “Udalaren baliabide ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak mobilizatzen dituen garapenerako lankidetzak egitea” eta “Gasteizko baliabideak mobilizatu eta lankidetzarako aliantzak ezartzea”.
- 3.2. Proiektuak ELGAko Garapenean Laguntzeko Batzordearen indarreko zerrendan garapenerako laguntza ofizialen onduraduntzat jotzen diren herrialdeetan baino ezingo dira burutu.
- 3.3. Ez dira diruz lagunduko deialdi honen barruan larrialdi humanitarioko proiektuak (hondamendi naturalei, gatazka armatuari, elikadura krisiei erantzutea), zeren eta Larrialdietarako Arabako Funtsaren bidez kudeatuko baitira; ezta ere, halaber, ekintza humanitarioko proiektuak.
- 3.4. Zehazki, deialdi honekin 4. artikuluko ataletan jasotako lankidetzak-ekintzak babestuko dira.

4. Deialdiaren atalak

- 4.1. Gida Plan luzatuaren barruan, Gasteizko Udalak 2026. urtean lagundu nahi dituen garapenerako lankidetzaren esparruko urteko proiektu-mota batzuentzat eta besteentzat da dirulaguntze deialdi hau. Eta, hala, atal hauek bereizten dira deialdian:
- a. UK atala (hiru urteko proiektuen ziklo berri baten hasiera): 2022ko garapenerako lankidetzaren deialdian aurretik aukeratutako 2026-2028 zikloko urteko proiektu “kateatuen” lehen urtea. Zuzkidura ekonomikoa: 1.213.160,49 euro.
- b. US atala (bi urtean behingo 2025-2026 ur- eta saneamendu-proiektuen zikloaren itxiera): 2025ean hasitako ur- eta saneamendu-azpiegitura eta -sistemen urteko proiektu “kateatuak” bukatzea. Zuzkidura ekonomikoa: 470.000,00 euro (200.000,00 euro AMVISAREN ekarpenaren kontura eta 270.000,00 euro Gasteizko Udalaren ekarpenaren kontura).
- c. USA atala: 2027 eta 2028 ekitaldietan diruz lagunduko diren uraren eta saneamenduaren alorreko urteko proiektu kateatuen aukeraketa, eta horiek formulatzeko egiteke dauden lan teknikoetan laguntzea. Diru-zuzkidura: 75.000,00 euro.
- d. LT atala: Oinarrizko zerbitzuak finkatzeko behar den laguntza teknikoa (ikus 35.1 artikulua) eta diru-sarrerak sortzeko jarduerak, udal-garapenerako lankidetzaren laguntzarekin abian jarritakoak. Zuzkidura ekonomikoa: 200.000,00 euro.
- e. PT atala: - luzeen jota sei hilabeteko epean egikaritzekoak diren lankidetzak-ekintza txikiak. Zuzkidura ekonomikoa: 90.000,00 euro.
- f. GEDLB atala: giza eskubideen defendatzaileak arrisku larriko egoeren aurrean babesteko ekintza urgentek eta puntualak egitea. Zuzkidura ekonomikoa: 100.000,00 euro.
- 4.2. Baldin eta atalen bateko diru-kopurua agortzen ez bada, gainerako ataletako eskabideei erantzuteko baliatu ahal izango da esleitu gabeko kopurua, betiere deialdi honetan finkatzen diren betebeharrak betetzen eta puntuazioak lortzen badira.

5. Eskabideak zeinek aurkez ditzaketen eta zeinek ez

- 5.1. Entitateek proiektu hauek baizik ezingo dituzte aurkeztu UK atalera: 2025. urteko garapenerako lankidetzak-proiektuen deialdiko UKA atalean proiektu horiek egiteko aurrez hautatu ziren proiektuen eskabideak, ez besterik. Deialdi horretan bi proiektu alde aurretik hautatuak dituztenek bi proiektu aurkeztu ahal izango dituzte atal honetan.
- 5.2. US atalean, 2025eko garapenerako lankidetzako dirulaguntza-deialdiko US atalean (urteko kateatuak) dirulaguntza jaso duten entitateek bakarrik aurkeztu ahaliko dute eskabidea.
- 5.3. USA atalean, honako entitate hauek baizik ezingo dute egin dirulaguntza-eskaera: Gasteizen presentzia eta jarduera izateko baldintzei buruzko irizpideen balorazioan gutxienez 5 puntu lortzen dutenek (deialdiko 1. eranskinean datoz ezarrita baldintza horiek).



5.4. LT atalean, oinarrizko zerbitzuetako eta diru-sarrerak sortzeko jardueretarako ez bestetarako Udalaren dirulaguntza izan zuten entitateek aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

5.5. PT atalerako dirulaguntza eskatu ahal izateko, entitateek 4 puntu lortu beharko dituzte deialdi honen 1. eranskinean ezarritako Gasteizen presentzia eta jarduera izateko baldintzetan, eta, gainera, beste baldintza hau ere bete beharko dute: azken kontabilitate-urtean (2025) ez kudeatu izana 250.000,00 euro baino gehiago.

5.6. GDLB atalean, honako entitate hauek baizik ezingo dute egin dirulaguntza-eskaera: Gasteizen presentzia eta jarduera izateko baldintzei buruzko irizpideen balorazioan gutxienez 4 puntu lortzen dutenek (deialdiko 1. eranskinean datoz ezarrita baldintza horiek). Era berean, ezingo da defendatzaileak babesteko ekintzarik aurkeztu, baldin eta UK atalaren barruan abian diren proiektuen esparruan jasota eta onartuta badaude.

5.7. UK, US edo USA ataletan dirulaguntza eskatzen duten entitateek ezingo dute eskabidea aurkeztu PT atalean.

5.8. Deialdiko atal guztietatik kanpo geratuko dira, berariaz, honako hauek:

a. Enpresak eta irabazi-asmoa duten bestelako entitateak.

b. Arabako SEADen Lagunen Elkarte, badelako nazioarteko lankidetzarako izendun dirulaguntza bat Gasteizko Udalak emanda; ordea, eskabidea aurkez dezake GDLB atalean.

c. Estatuaren, autonomia-erkidegoko administrazioaren, foru-aldundien eta gainerako administrazio lokalen menpeko instituzio eta zerbitzuak.

5.9. Eskabideak aurkeztu ahal izango dituzte, PT atalean izan ezik, entitate bat baino gehiago bilduta. Kasu horretan, honako hauek egin beharko dira:

a. Berariaz jasotzea taldeko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartutako konpromisoak.

b. Taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatzea, dirulaguntzatik eratorritako betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen.

c. Guztiek eduki beharko dituzte beteta zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak.

d. Eta, oro har, entitate guztiek bete behar dute Udalaren Dirulaguntzen Ordenantzako 9. eta 11. artikuluetan adierazitakoa.

6. Proiektuen betekizun orokorrak

6.1. Helburuak. Ekintzaren helburuek deialdi honen 3. artikuluan adierazi diren irizpide orokorretara egokitu beharko dute.

6.2. Koherentzia. Burutuko den ekintza behar bezala azaldu beharko da, eta erlazio koherentea egon egoeraren diagnostikoaren, helburuen, emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko beharrezko diren baliabideen artean.

6.3. Bideragarritasuna. Eskabidearekin batera, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlanen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta horiek egin dituzten pertsona edo entitateen esperientziarena. Eraikuntza- edo azpiegitura-osagai bat duten proiektuen kasuan, US proiektuen kasuan eta ekonomia- edo ekoizpen-osagai bat duten proiektuen kasuan, karpeta tekniko bat aurkeztu beharko da, gutxienez 8., 9. eta 10. eranskinetan jasotako dokumentazioa jasotzen duena, proiektu motaren arabera.

6.4. Gaitasuna. Proiektua edo ekintza egikaritzeko ardura duen entitatearen helburuei eta lan-espereziari buruzko informazio nahikoa ematea.

6.5. Identifikazioa eta formulazioa. Metodologia normalizatua erabiltzea, helburuak, emaitzak eta proiektua gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak eta jarduerak zehazteko. Marko logikoa edo antzeko metodologia normalizaturen bat baliatu ahal izango da.

6.6. Gasteizko Udalari eskatutako dirulaguntzak ezin izango du gainditu proiektu osoaren ehuneko 85, GDLB atalaren kasuan izan ezik. Proiektuak udal-zerbitzu baten baino gehiagoren dirulaguntzak baditu, ekarpen horien guztien baturak ezin izango du gainditu aurrekontu osoaren ehuneko 85.



a. GDLB atalean, ekintzak presazkoak direnez eta larrialdi-egoeretan kofinantzaketa lortzeko zailtasunak daudenez, lekuan bertan zuzeneko babes-neurriek duten kostuaren ehuneko 100era irits daiteke dirulaguntza.

6.7. Nahikoa kofinantzaketa: Udalaren dirulaguntzaren eta dagoeneko onartuta dauden beste finantzaketa batzuen baturak (adostutako ekarpen balorizatuak barne), gutxienez, urteko proiektuaren aurrekontu osoaren % 75era iritsi beharko du.

6.8. Kanbio-tasa. Aurrekontua eurotan kalkulatzeko, euroaren, dolarraren eta/edo moneta nazionalaren arteko kanbio-tasen balioa erabiliko da; zehazki, proiektuak gauzatuko diren herrialdeetako banku zentralak edo Europako Banku Zentralak dena delako atalean eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehenago hogeita hamar egun naturaleko tartean argitaratutakoa.

6.9. Proiektua gauzaten hastea: 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasi beharko da, eta ezin izango da atzeratu dirulaguntza ordaintzen denetik hiru hilabete baino gehiago. Arrazoiren batek egikaritzen hastea gehiago atzeratzea justifikatzen badu, oinarri hauen 13.7 artikuluan adierazitakoaren arabera jokatu beharko da, baina baimen horrek ez ditu inola ere luzatuko adierazitako egikaritze- eta justifikazio-epeak; beraz, proiektua egikaritzeko benetako epea murriztu egingo da kasu horretan.

6.10. Jarraipena: Jarraipen-metodologia definituta eduki beharko dute proiektu guztiek, eta hasierako jarduerak programatuta.

6.11. Proiektuaren ikuspegiari eta diseinuari datxezkion alderdiak direnez, 6.1 eta 6.5 bitarteko betebeharrak ezin izango dira zuzendu, falta diren eranskin osagarriak aurkezteko ez bada, non eta ez dagozkion proiektuaren diseinuaren funtsezko alderdiei.

6.12. 6.6 eta 6.10 bitarteko betebeharrak zuzenketak egin ahal izango zaizkie, beharrezkoa bada.

7. Zeharkako ikuspegiekin lotutako betekizunak

7.1. Proiektu guztiek Gida Plan luzatua definitutako zeharkako ikuspegiak hartu beharko dituzte kontuan:

a. Eskubideen ikuspegia. Pertsonak beren garapenaren funtsezko aktoretzat jotzen dira, ez ondasun eta zerbitzuen hartzaile pasibotzat.

b. Ikuspegi lokal-globala. Gasteizko kolektiboen benetako inplikazioa eduki beharko dute proiektu guztiek.

c. Genero-berdintasunaren ikuspegia. Batetik, populazioaren eta hartzaileen datuak sexu edo generoaren arabera bereizita —emakumezkoak, gizonezkoak eta, bidezko bada, ez binarioak— aurkeztu beharko dira, bai proiektuan, bai justifikazioan. Bestetik, generoaren arloko betebeharrak hauek bete beharko dituzte lankidetzaren proiektu guztiek:

- Testuinguruaren eta problematikaren deskribapenean genero-analisia sartzea.
- Aurretiazko ebaluazio bat egitea, proiektuak emakumeen bizitzan izango duen eragina argi eta garbi zehaztu ahal izateko, haienezko edozein emaitza negatibo saiheste aldera, eta, izanez gero, eragin hori neutralizatzeko neurri zuzentzaileak aurreikuste aldera.
- Proiektuan emakumeen partaidetza aktiboa sustatzeko estrategiak garatzea.
- Emakumeek proiektuan sortzen diren enplegu ordainduak eskuratzetik izatea.
- Genero-emaitzak (PT izan ezik) eta genero-adierazleak (USA izan ezik) formulatzea.

8. Deialdiaren lehentasunak

Proiektu hauek lehentasunezko zatitzat jotzen dira:

8.1. Gasteizko kolektibo edo profesionalen benetako inplikazioa nahiz garatzen diren herrialdeetako pertsona eta kolektiboekiko trukea sustatzen duten proiektuak —eta, horrenbestez, elkartzaren kultura sustatzen laguntzen dutenak—.

8.2. Genero-berdintasuna lortzen laguntzen duten eta ikuspegi feminista aintzat hartzen duten proiektuak.



8.3. Hiriko kolektiboek eta pertsona migratzaileek garapenerako GKEekin elkarlan aktiboan diharduten proiektuak.

8.4. Afrikaren aldeko lehentasuna ezartzen da, helburu bikoitzarekin: batetik, kontinente horretan lankidetzaz sustatzea; bestetik, proiektuak balioesteko aintzat hartu ohi diren alderdietako zenbait betetzeko orduan Afrikako herrialde askotan izan ohi diren zailtasunak konpentsatzea. Horregatik, Afrikan egitekoak diren proiektuei 1,05eko gehikuntza-koefizientea aplikatuko zaie baremazioan.

9. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zuzeneko kostuak

9.1. Zuzeneko jarduera dela medio proiektuaren emaitza bat, produktu bat edo zerbitzu bat lortzearekin funtsezko erlazioa duten gastuak dira zuzeneko kostuak. Kostu identifikagarriak dira, osorik edo partez proiektu jakin bati zuzenean egotzi dakizkiokeenak, eta jarduera zehatzarekin duten lotura egiaztatzeko aukera ematen dutenak.

9.2. Hauekin zuzenean zerikusia dutenak dira zuzeneko kostuak:

- a. Lursail edo eraikinak erostea (ikus 9.3 artikulua).
- b. Azpiegiturak eraiki eta eraberritzea.
- c. Materialak, hornidurak eta ekipamenduak erosi eta garraiatzea.
- d. Azterlan teknikoak egitea.
- e. Auditoriak
- f. Langile lokalen gastuak, zeinak zehatz-mehatz justifikatu beharko baitira (ikus 9.4 , 9.5. eta 9.6 artikulua).
- g. Langile atzerriratuenak (ikus 9.5 artikulua).
- h. gaikuntza- eta prestakuntza-gastuak.
- i. Gasteizetikotrukeak.
- j. Kalitateko material grafikoa eta ikus-entzunezkoa —proiektuaren inguruko guztiaren berri emateko eta sentsibilizatzeko editatu litekeena— lortu edo ekoizteari dagozkionak.

9.3. Aparteko kasuetan bakarrik baliatu ahal izango da dirulaguntza lursailak edo bestelako ondasun higiezinak erosteko; halakoetan, gainera, argi eta garbi egiaztatu beharko da, dokumentu bidez, haiek erakunde publiko edo komunitario baten esku geldituko direla, eta gutxienez hamabost urtez erabiliko dela proiektuaren helburuetarako.

9.4. Lanaldi oso nahiz partzialez proiektuko jarduerari lotutako zuzeneko zeregin eta eginkizunak egiten dituzten langile lokalen zuzeneko kostua diruz lagundu ahal izango da. Langile lokaltzat jo ahal izateko, proiektua gauzatzen den herrialdeko legediaren araberrako kontratua izan beharko dute. Dirulaguntza jaso duen entitateak kontratatuta egon liteke, edo eskabidea egiten duen taldeko beste edozeinek, edo bazkide lokalen batek. Proiektuan diharduen pertsona bakoitzaren zereginak dokumentatu beharko dira, baita jardueretan duen dedikazioaren ehunekoa ere.

9.5. PT, USA eta LT ataletako dirulaguntzetan, tokiko langileentzako dirulaguntzaren xedea salbuespenezkoa izango da. Gehienez ere, dirulaguntzaren ehuneko 20koa izango da kontzeptu horri dagokion zenbatekoa.

9.6. UK eta US ataletako dirulaguntzek, hala badagokio, proiektuaren koordinazioari dagozkion gastuak estali ahal izango dituzte. Gehienez ere, dirulaguntzaren ehuneko 7koa izango da kontzeptu horri dagokion zenbatekoa.

9.7. UK eta US ataletako dirulaguntzek, kasua bada, lankidetzan diharduten atzerriratuen gastuak ere estali ahal izango dituzte, baldin eta proiektuaren barruko jarduera jakin batzuk gauzatzeko beharrezkoa den trebetasuna egiaztatzen bada eta trebetasun hori proiektua gauzatzen den herrialdean aurkitu ezin bada. Gehienez ere, dirulaguntzaren ehuneko 20koa izango da kontzeptu horri dagokion zenbatekoa. Kontzeptu horretara bideratzen den dirulaguntzaren benetako ehunekoa zehazteko, arestian aipatutako trebetasuna hartuko da kontuan, baita dena delakoaren funtzioak eta proiektuko jarduera jakin batzuetarako benetako dedikazioa ere.

9.8. Ez da dirulaguntzarik emango proiektuen ebaluazioak egiteko.



9.9. Bitartekoak jarri beharko dira kostuak egokienak izan daitezen, prezioari eta kalitateari dagokienez.

9.10. PT, USA, LT eta GDLB ataletako dirulaguntzetan ez dira sartuko gastu hauek:

- a. langile atzerriratuak
- b. Gasteizetik trukeak,
- c. proiektuaren koordinazioa,
- d. material grafikoa eta ikus-entzunezkoa lortzea-ekoiztea, komunikatzeko edo zabaltzeko.

10. Dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zeharkako kostuak

10.1. Zeharkako kostuak edo funtzionamendu orokorrekoak dira diruz lagundutako proiektuaren jarduera zehatzei zuzenean egotzi ezin zaizkien baina proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren gastuak. Horien barruan sartzen dira, alde batetik, proiektuaren kudeaketa, jarraipen eta administrazio orokorrari lotutako gastuak (proiektua inskribatu daitekeen programen koordinazioa barne) eta, bestetik, entitatearen beraren mantentze-gastuak (adibidez, energia elektrikoaren, telefonoaren, gasaren, uraren, alokairuaren, garbiketaren, aholkularitzaren, informatikaren, mantentze orokorraren, segurtasunaren, gainbegiratzearen edo kontabilitatearen ordainketari lotutako gastuak, besteak beste).

10.2. Oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz zentzuzko den neurrian egotzi beharko dizkio kostu horiek diruz lagundutako jarduerari entitate onuradunak, eta, betiere, kostu horiek jarduera burutzen deneko aldiari dagozkion neurrian.

10.3. UK eta US ataletan, Udalaren dirulaguntzari egotzen zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan dirulaguntzaren ehuneko 14tik gorakoak, kontuan izanik:

- a. Tokian tokiko bazkidearen zeharkako kostua edo funtzionamendu-kostuak dirulaguntzaren ehuneko 7ra arte lagundu ahal izango dira diruz.
- b. Entitate eskatzailearen zeharkako kostuek dirulaguntza osoaren ehuneko 7ko dirulaguntza jaso ahal izango dute gehienez.

10.4. PT, LT eta GDLB ataletan, Udalaren dirulaguntzari egotzen zaizkion zeharkako kostuak ezingo dira izan dirulaguntzaren ehuneko 7tik gorakoak. Bazkide lokalak proiektuaren administrazio-gastuen parte bat bere gain hartzen badu, zehaztu egingo da.

10.5. USA ataleko dirulaguntzetan ez da zeharkako kosturik sartuko.

10.6. Kostu horiek ez dira dokumentu bidez justifikatu beharko, baina dirulaguntza justifikatzeko memoriako proiektu/jardueraren diru-sarreraren eta gastuen balantzean jaso beharko dira, eta aitortu egin beharko dira, justifikazio-kontu arruntaren (JKA) edo sinplifikatuaren justifikazio-eranskinei dagozkien apartatuak beteta, udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/lankidetza) eta egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/es/tramiteak>) eskuragarri dauden ereduaren arabera.

11. Proiektuak aurkezteko prozedura

11.1. UK, US, LT eta PT ataletan, momentu bakar batean egiten da proiektuen hautaketa, entitateek aurkezten dituzten behin betiko proiektuen balorazioa abiapuntutzat hartuta. Atal horiei buruzko ebazpenak 2026ko ekitaldiari dagokion dirulaguntza bakarrik onetsiko du.

11.2. USA atalean (hiru urterako kateatutako urteko proiektuen ziklo berria, 2027-2028), proiektuak aurkeztu eta hautatzeko: prozedurak hiru fase ditu, eta dagokion atalean zehazten da.

11.3. GDLB atalean, ekintzak Garapen Lankidetzarako Zerbitzuaren (aurrerantzean GLZ) balorazio positiboa izan beharko du, entitate eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta atalerako kreditua esleituta egon beharko da.



12. Dirulaguntzak emateko eta proiektuak balioesteko prozedura

12.1. Esleitzeko prozedura norgehiagoka bidezko konkurrentzia izango da atal guztietarako, GDLB atalerako izan ezik, konkurrentzia sinplearen bidezkoa izango baita atal horretan, esleitutako urteko kreditua agortu arte (ikus 49.1).

12.2. Proiektuak GLZko talde teknikoko hiru kidek osatutako batzorde batek baloratuko ditu:

a. Haietako batek Urteko Proiektu Kateatuak koordinatzen ditu (UK Atala),

b. Beste batek Uraren eta Saneamenduaren proiektuak (bai 2027-2028 ziklo berriko alde aurreko hautaketa, bai aurreko 2025-2026 zikloa amaitzea) eta Laguntza Teknikoko proiektuak (LT Atala) koordinatzen ditu.

c. Eta hirugarren batek proiektu txikiak (PT atala) eta giza eskubideen defendatzaileen larrialdiko babeserako proiektuak (GDLB) koordinatzen ditu.

12.3. Urteko proiektu kateatuen arduraduna izango da balioespen-batzordeko lehendakaria; idazkaria, berriz, Ur eta Saneamenduaren eta Laguntza Teknikoko proiektuen arduraduna.

12.4. Proiektuen bideragarritasun teknikoa neurtzeko —eta horien kalitatea eta efikazia hobetzeko—, dena delako sektoreari edo gaiari dagokionez eskudun diren udal zerbitzu teknikoen laguntza eskatu ahal izango da, behar izanez gero.

12.5. Uraren saneamenduaren alorreko osagaiak dituzten proiektuen kasuan, nahitaezkoa izango AMVISA-Gasteizko Udal Urak SAREN txosten tekniko aldekoa edukitzea.

12.6. Proiektuei behin betiko puntuazioa eman aurretik, komenigarritzat jotzen dituen argibideak eskatu ahal izango dizkio Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak entitate eskatzaileari, eta hala jasota utziko du prozeduran.

12.7. 2. eranskinetik 7.era artekoetan ageri diren baremoak baliatuko dira balorazioa egiteko; atal bakoitzean zehazten da zeintzuk diren.

12.8. Eranskin horietan izartxo batez (*) markatuta ageri diren alderdiak betebehartzat jotzen dira; beraz, horietakoren batean zero puntu ateraz gero, proiektua baztertu egingo da.

12.9. Baldin eta irizpideari “bidezkoa bada” oharra gehitu bazaio, bere proiektuaren kasuan ez dituela beharrezkotzat jotzen zehaztu eta argudiatu ahal izango du entitate eskatzaileak.

12.10. Eskatzailearen argudioak kontuan hartu eta balioespen teknikoan irizpide jakin bat bidezkotzat jotzen ez bada, ez da aintzat hartuko horri dagokion puntuazioa. Horrenbestez, bidezkotzat jotzen diren irizpideak aintzat harturik gehienez eskura daitezkeen puntuen gainean lortzen den ehuneko izango da proiektuaren puntuazioa, kasu guztietan.

12.11. Baldin eta proiektu batek guztira lortutako puntuazioa ehuneko 50etik beherakoa bada, ezin izango da onetsi.

12.12. Emango den dirulaguntza zehazteko, kendu egingo dira eskatutako zenbatekotik balorazio-batzordearen ustez deialdiaren arabera pertinente ez diren partida edo kontzeptuak, ezegokiak edo gehiegizkoak direlako, edo behar bezala justifikatuta ez daudelako

12.13. Norghegiagoka bidezko konkurrentziaren bidezko ekintzetarako, lehentasun-hurrenkeran emango dira dirulaguntzak, lortutako puntuen arabera, eta aukeran izango da esleitu beharreko zenbatekoa murriztea, erabilgarri dagoen zenbatekoa hainbanatuz, proiektu gehigarriren bat sartzeko, kontuan izanik inolaz ere ez dela emango eskatutakoaren ehuneko 80tik beherako dirulaguntzarik, behin aurreko artikuluan aipatutako murrizketak aplikatu ostean.

12.14. Atal baten ebazpenak puntuazio nahikoa lortu duten proiektu guztiak diruz laguntzea ahalbidetu ez badu, itzarote-zerrenda bat sortuko da onartutako proiektuekin, puntuazio handienetik txikienerako hurrenkeran, eta dirulaguntza gehigarriak onartu ahal izango dira lehentasun-hurrenkeraren arabera, baldin eta baliabiderik erabilgarri geratu bada entitatereen batek dirulaguntzari uko egiteagatik edo 2.4 puntuan jasotako kasuren batengatik. Kasu honetan ematen diren dirulaguntzek ezingo dute gainditu lehenengo ebazpenean ezarritako ehuneko, eskatutako zenbatekoari dagokiona.



12.15. Deialdi honetako atalak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, atal bakoitzean eskabideak aurkezteko azken egunetik zenbatzen hasita. Atal bakoitzerako ezarritako prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskatzaileek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea.

12.16. GDLB atalean, konkurrentzia sinplearen bidezkoa izango da prozedura, kontsignatutako kreditua agortu arte, honako berezitasun hauekin:

a. Eskabideak **sarrera-hurrenkeraren** arabera ebaluatuko dira, eskatutako dokumentazioa osatu ondoren.

b. Eskaera bat baloratzeko unean gertatuz gero kreditu erabilgarria nahikoa ez izatea egindako eskaerarako:

- Entitateari aukera emango zaio zenbatekoaren murrizketa proportzionala egiteko, betiere ez bada arriskuan jartzen babes-neurrien eraginkortasuna.
 - Entitateak onartzen badu, dirulaguntza onetsi egingo da baliagarri dagoen zenbatekoaren arabera.
 - Entitateak uko egiten badio, itxaron-zerrendan geratuko da, oinarri hauen 49.4 artikuluaen arabera.
- c. Egun berean aurkeztutako eskabideek kreditu nahikorik ez badute, puntuazio handiena lortzen dutenek izango dute lehentasuna.

13. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak zein konpromiso hartu beharko dituen

13.1. Bidezkoa den guztiari dagokionez (proiektuaren publizitate-betebeharrak, euskararen erabilera, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, berriro formulatzea, uko egitea, justifikatzea, publizitatea, proiektua aldatzea, beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna), Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du dirulaguntza jasotzen duen entitateak, eta, horrez gain, baita ondoren adierazten dena ere.

13.2. Jakinarazpena jaso ondoren hilabeteko epean gehienez, dirulaguntza jasotzen duen organizazioak —legezko ordezkariaren bitartez— hitzarmena sinatu beharko du Gasteizko Udalarekin, non jasota utziko baita zertarako izango den zehazki dirulaguntza, zein izango diren gainerako finantzaketa-iturriak, baita dirulaguntza jaso duen ekintzaren jarraipena egiteko bitartekoen zer-nolakoak eta maiztasuna ere.

13.3. Deklarazio hori izenpetzen duelarik, konpromiso hauek hartuko ditu dirulaguntza jaso duen organizazioak:

a. Proiektua gauzatzeaz arduratuko den organizazio lokalarekin eta, kasua bada, proiektuko gainerako aktore lokalekin hitzarmena sinatzea, non Gasteizko Udalaren dirulaguntzaren jatorria, zenbatekoa eta partiden araberako banaketa zehazten den, eta proiektuan parte hartzen dutenei dirulaguntza horren berri emateko konpromisoa jasotzen. Dirulaguntza ordaindu ondoren, hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko zaio Udalari hitzarmen hori.

b. Udalari jakinaraztea proiektua benetan zein egunetan hasi den gauzatzen.

c. Udalari laguntzea herritarrei proiektuaren bilakaerari buruzko informazioa helarazten.

d. Proiektuaren garapeneko jarduketetan funtsen jatorria ikusaraztea, salbu eta proiektuaren testuinguruagatik gomendagarria ez bada eta GLZrekin hala adostuta.

13.4. Salbuespen gisa, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango diote onuradunek dirulaguntza eman duen organoari, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ezusteko zirkunstantziak agertzen badira, edo beharrezkoa bada jarduketa behar bezala gauzatzeko. Eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera burutzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da aldaketa egiteko eskabidea.

13.5. Funtsezko aldaketak. Era horretako aldaketek Tokiko Gobernu Batzarraren baimen espresua beharko dute. Beraz, idatzizko eskaera formal bat aurkeztu behar zaio GLZri, proposatutako aldaketak argudiatzeko, aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak agertu eta berehala, eta proiektua egikartzeko epea amaitu baino 45 egun baliiodun lehenago gutxienez. Funtsezko edozein aldaketa egin aurretik, irizpena emango du Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuak, eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkariak onetsi beharko du. Hauek dira funtsezko aldaketak:



- a. Proiektuaren kokalekuaren edozein aldaketa.
- b. Bazkide lokalaren aldaketa.
- c. Proiektuaren xede-populazioaren aldaketa.
- d. Helburu eta emaitzen mailako aldaketak.
- e. Aurrekontua. Aurrekontu-kapituluren batean dirulaguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 7 edo gehiago gora edo behera egitea dakarren edozein aldaketa, edo dena delako kapituluaren ehuneko 50eko edo gehiagoko aldaketa.

13.6. Funtsezkoak ez diren aldaketak. Aurreko artikuluan jaso ez diren gainerako aldaketak egiteko, nahikoa izango da Garapenerako Lankidetzarako Zerbitzuari haien berri ematea idatziz.

13.7. Egikaritzeko epea luzatu ahal izango da, aldez aurreko baimenik behar izan gabe, gehienez ere hiru hilabetez. Epea amaitzeko hasierako epea amaitu baino lehen jakinarazi eta arrazoitu beharko zaio GLZri. Emendatze are handiagoak egiteko, organo emailearen aldez aurreko baimena beharko da, eta egikaritze-epea amaitu baino lehen eskatu beharko da.

13.8. Azpikontratazioa. Dirulaguntzen ordenantza orokorraren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berezitasun honekin:

- a. Jardueraren ehuneko 70era arte azpikontratatzea baimentzen da dirulaguntzen ildo honetan.
- b. Ez da azpikontrataziotzat joko tokian tokiko bazkide batek edo kontrako alderdi atzeritar batek exekutatzea partez edo osoki dirulaguntza.

13.9. komunikatzeko eta zabalkundea egiteko materiala:

a. Lankidetzaren proiektu guztiek, GDLB atalean diruz lagundutako ekintzek izan ezik, lekukotza eta/edo informazio-material egokiak aurkeztu beharko dituzte, proiektuaren egikaritzea egiaztatzeko.

b. GDLB atalean ez da eskatuko defendatzaileen testigantzak, irudiak, grabazioak edo haien identifikatzeko edozein material ematea, horrek haien segurtasuna edo hartutako neurrien eraginkortasuna arriskuan jar badezake. Nolanahi ere, entitate eskatzaileek, egokitze jotzen badute eta beren erantzukizunpean, beren ustez defendatzaileen aurkako jazarpenaren arazoa ikusarazten laguntzen duen komunikazio-materiala aurkeztu ahal izango dute.

c. UK eta US ataletako, proiektuen aurrerabideak eta lorpenak islatzen dituzten irudi filmatuak eta argazkiak aurkeztu beharko dira, formatu editagarrian, jarduera publikoetan eta Udalaren kanalen bitartez (webgunea, sare sozialak, intranet eta abar) zabaltzeko.

13.10. Konpromiso horiek ez betetzeak dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharra ekarri ahalko du berekin, baita dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazitako kasuek ere.

14. Dirulaguntza ordaintzea

Justifikatu aurretik ordainduko da dirulaguntza, ordainketa aurreratu gisa. Aldi bakarrean ordainduko da, adjudikazio-ebazpena eman eta gero, inongo bermerik jarri beharrik gabe.

15. Diruz lagundutako ekintzen jarraipena

15.1. Dirulaguntza jasotzen duen entitatea gutxienez urtean behin bildu beharko da GLZrekin, proiektuaren bilakaera balioesteko. Bilera hori proiektua egikaritzen hasi eta 6 hilabetera programatuko da, gutxi gorabehera.

15.2. Onuradunak atal bakoitzean zehaztutako txostenak aurkeztu beharko ditu.

15.3. Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak edo Udaleko teknikari espezializatuek proiektua jarraitzeko bisitak egin ahalko dituzte; aldez aurretik eman behar zaio haien berri entitate diruz lagunduari.

15.4. Ebaluazioa eta ikaskuntza:

- a. Era berean, Gasteizko Udalak funts propioen kontura kontratatu ahal izango ditu egiten ari diren proiektuen kanpo-ebaluazioak edo auditoretzak, amaitutakoan edo ex post.



16. Dirulaguntzak justifikatzea

16.1. Dirulaguntza jasotzen duten entitateek justifikatu egin beharko dituzte, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren VI. kapituluko (“Dirulaguntzak justifikatzea”) 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bertan adierazten diren epeetan, bigarren xedapen gehigarrian garapenerako lankidetzako dirulaguntzez xedatutakoa kontuan hartuz.

16.2. Emandako dirulaguntza 60.000,00 eurotik gorakoa bada, lehentasunezko justifikazio-modalitatea auditorearen txostena duen justifikazio-kontua izango da, 188/2025 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta dirulaguntzen ordenantzaren 34. artikulua arabera. Hala ere, entitate onuradunak, GLZren bidez eta modu arrazoituan, justifikazioko kontu arrunta (dirulaguntzen ordenantzaren 33. artikulua) erabiltzeko eskatu ahal izango du, adieraziz zergatik zaion zailagoa justifikazioko kontua auditoria-txostenarekin aurkeztea.

16.3. Emandako zenbatekoa 60.000,00 eurokoa edo gutxiagokoa bada, justifikazio-modalitatea justifikazio-kontu sinplifikatua izango da (Dirulaguntzen Ordenantzaren 35. artikulua). - Justifikazio-kontu sinplifikatuaren barnean, hala, diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda joango da, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, jasotzailea/hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data. GLZk, zerrenda horretan oinarrituta, gastu-egiaztagiriak hautatuko ditu, gutxienez emandako dirulaguntzaren % 40ra arte, eta pertsona edo entitatea onuradunari eskatuko dizkio.

16.4. Entitate onuradunek 4 urtez gorde beharko dituzte jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiriak, dokumentu elektronikoak barne, dirulaguntza justifikatzeko txostena aurkezten duten egunetik aurrera.

16.5. Garapen bidean dauden herrialdeetan egindako ekintzak justifikatzeko erregulazio-esparrua martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretua da, garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituena, eta, zehazki, haren I. titulua, Dirulaguntzen eta laguntzen xedapen komunak, III., IV. eta V. kapituluak.

16.6. Kontaketa-txostenak eta justifikazio-memoriak Udalaren GLZak deialdiko atal bakoitzerako ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, eta diruz lagundutako entitatearen legezko ordezkariak sinatu beharko ditu. Gainera, GLZra bidali beharko dira testu-prozesadorearen formatuko kontaketa-zatia eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...—. Digitalizatzea ezinezkoa bada, euskarri egokian aurkeztu beharko dira.

16.7. Deialdi honetan emandako dirulaguntzak justifikatzeko eskatzen diren dokumentuak eskuragarri egongo dira Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/lankidetzak) eta egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/es/tramiteak>). Bidaia- eta dieta-gastuak justifikatzeko, aitortutako gastu-egiaztagiriak erantsi behar dira, eta justifikazio-kontu arruntean (JKA) jasotzen diren apartatuak bete behar dira, edo ohar bakar batean bildu jarduera edo pertsona berari buruzko guztiak, justifikazio-kontu sinplearen modalitatean (JKS).

17. Deialdian zenbatekorik soberan geratuz gero

Baldin eta, deialdia ebazten delarik, erabilgarri dagoen zenbatekoa agortzen ez bada, soberakina 2450 2391 4 8200 “Lankidetzarako dirulaguntzak” partidaren kontura egitekoa den beste deialdi bati edo GLZren aurrekontuko IV. kapituluko beste partida bati esleitzeko izapideak egingo ahal izango dira.



UK ATALA: URTEKO PROIEKTU KATEATUAK

18. UK atalaren xedea

18.1. UK atalaren xedea da gehienez ere hiru urteko jarraitutasuna (2026-2028) izateko eta urteko proiektu “kateatuak” deritzon eskemaren arabera planteatutako hamar proiekturen abiatzea laguntzea.

18.2. Proiektuak, hala, 2025. urterako garapenerako lankidetzaren arloko dirulaguntzen deialdian USA atalari dagokion ebazpenean aldez aurretik hautatutako hamaika proiektuen artean hautatuko dira.

19. UK ataleko lehentasunak

19.1. 2022-2025 aldirako Garapenerako Lankidetzaren Gida Plan luzatuak definitutako lehentasun sektorialak: giza eskubideen babesa, genero-berdintasuna, ura eta saneamendua, gazteria, ekonomia sozial eta solidarioa eta jasangarritasun ekologikoa. zeintzuk jada baloratu baitziren 2025erako garapenerako dirulaguntzen deialdiko USA atalari dagozkion urteko proiektu kateatuen lehen hautaketan, eta, beraz, ez dira berriro baloratzen.

19.2. 8. artikuluan adierazitakoez gain, orobat lehenetsiko dira nazioarteko estrategia baten barruko ekintzak barne hartzen dituzten proiektuak, eta lankidetzeta-metodologietan berrikuntzak sartzen dituztenak, hala nola lankidetzeta triangeluarra edo hego-hego lankidetzeta, betiere Gasteiztik inplikazio handia badaramate.

20. UK ataleko proiektuek bete beharreko berariazko betekizunak

20.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 6. eta 7. artikuluetan galdatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

20.2. Proiektua gauzatzeko epea ezingo da izan 12 hilabetetik gorakoa, dirulaguntza ordaintzen denetik. Emaiza operatiboak aurreikusi beharko ditu proposamenak, dirulaguntzaren denbora-tartean.

20.3. Lortu nahi diren emaitzak: Proiektuaren emaitzen parte handi batek begien bistakoa izan beharko du, dela garapen lokalerako proiektua, pertsonak eta komunitateak babestekoa nahiz nazioarteko ekintzaren arlokoa —xede-populazioaren bizi-baldintzak nabarmen hobetu beharko ditu proiektuak—.

Tokiko plangintza- edo politika-tresnak sortzea dakarten emaitza edo produktuen kasuan, erakunde eskudunek horiek onesteko eta ondoren aplikatzeko baldintzak bermatu beharko dira, eta aplikazio horretan aurrera egitea izango da hurrengo urteetan laguntzari eusteko baldintzetako bat.

20.4. Iraunkortasuna: dirulaguntza bukatu ondoren proiektuaren emaitzek eta produktuek denboran iraungo dutela bermatzeko zein baliabide erabiliko diren jakiteko aukera emango duten informazioa eta dokumentazioa erantsi beharko zaizkie proposamenei.

20.5. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena: 130.000,00 euro

20.6. Dirulaguntzak eskatzeko formularioak betetzeko gehienez ere 20.000 hitz erabili beharko dira.

20.7. Hitzen zenbaketak inprimakiaren gorputza baino ez du barne hartuko, azalak, indizeak, eranskin teknikoak eta aurrekontuak izan ezik.

20.8. Aurrekontua: aurrekontu xehatua aurkeztuko da partiden eta kofinantzatzaileen arabera, eta jardueren arabera lehen urterako, eta aurrekontuen partida globalen zenbatespena egingo da bigarren eta hirugarren urteetarako. Aurrekontu horretan jaso beharko da nola Gasteizko Udalari eskatutako zenbatekoaren % 80, gutxienez, zuzeneko gastuetara bideratu beharko den, auditoria-gastuak eta 9.6 puntuan adierazitakoak alde batera utzita.



20.9. Giza eskubideak babesteko proiektuen kasuan, babestera bideratutako gastuak eta bestelakoak agerian jarri beharko dira, finantzatzen lagunduko duen entitate bakoitzeko. Estu-estu biktimek babesteko edo horiei laguntzeko ez diren jardueretatik sortzen diren gastuek ezingo dute gainditu eskatutako dirulaguntzaren ehuneko 25; hala nola: prestakuntza eta gastu eratorriak, eragin sozial eta politikoa, sentsibilizazioa, zabalkundea, bilerak eta ondoriozko gastuak, dokumentuen diseinua, diagramazioa eta inprimaketa, giza eskubideen urraketen biktimei arreta emateko eginkizun espezifikoak zuzenean betetzen ari ez den edozein (aholkularitza juridikoa, psikologikoa, medikoa edo soziala).

20.10. Prozesuaren lehen urteko aurrerapenak. Aurreikusitako emaitzak definitu beharko dira, lau esparrutan:

- a. proiektuaren helburu nagusiari lotuak,
- b. generoaren arlokoak;
- c. Garapenerako agintari, plan edo ekimen lokalekiko koordinazioaren arlokoak, salbu eta, giza eskubideak babesteko proiektuetan, ezinezkoa gertatzen bada;
- d. Gasteizko kolektiboekiko inplikazioaren eta trukearen arlokoak.

21. Jarraipen-txostenak

21.1. Dirulaguntza jasotzen duten entitateek honako txosten hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a. Ohar bat jarraipen-proposamena aurkezterako (2. urtea) izandako aurrerapenaz, hartara 2027ko deialdian kofinantzatzen jarraitu ahal izateko, hala balegokio. Horretarako, nahitaezkoa izango da:
 - Aurrerapen-maila egokia proiektuaren egikaritze teknikoan eta finantzarioan, GLZko teknikariek egiaztatuta.
 - Nahikoa aurrerapen, onetsitako proiektuaren adierazle hauetan: helburu nagusia, generoaren arloa, garapenerako edo giza eskubideak babesteko beste plan eta ekimen lokalekiko artikulazioa, bidezko bada, eta Gasteizko kolektiboek inplikazioa.
- b. Bukaerako txostena —narrazioa eta azalpen ekonomikoa—, zeina ekintza bukatu ondoren gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko baita.

22. UK ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Epea: 20 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira eskabideak, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

23. UK ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

Oinarrien 2. eranskinean biltzen dira UK ataleko balioespen-irizpideak.



US ATALA: URAREN ETA/EDO SANEAMENDUAREN ARLOKO PROIEKTUAK

24. US atalaren xedea

US atalaren xedea da 2025ko deialdiko US atalean bi urtez (2025-2026) jarraitutasuna izateko eta urteko proiektu “kateatuen” eskema baten barruan planteatutako urtez urteko esku-hartze gisa onartu ziren proiektuak bukatzen laguntzea.

25. US ataleko proiektuek bete beharreko berariazko betekizunak

- 25.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 6. eta 7. artikuluetan galdatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.
- 25.2. Proiektua gauzatzeko epea ezingo da izan 12 hilabetetik gorakoa, dirulaguntza ordaintzen denetik.
- 25.3. Eskatutako dirulaguntzaren % 50, gutxienez, edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzuak hornitzeko azpiegiturak eta sistemak eraikitze edo hobetzeko izango da.
- 25.4. Sistema berrien hartuneak egin edo proiektuaren hasieran aurreikusitakoak aldatuz gero, 9. eranskinean zehazten diren alderdiak jaso beharko dira bideragarritasun teknikoari buruzko dokumentazioan.
- 25.5. Edateko kalitateko uraren edota saneamenduaren zerbitzu publikoak benetan baliatu ahal izatea ahalbidetu beharko dute proiektuaren emaitzek, xede-populazioak bere gain hartzeko moduko kostuarekin.
- 25.6. Esku-hartzeek, teknologia, legedi eta finantzen arloko alderdiak ez ezik, hauek ere aintzat hartu beharko dituzte, testuinguruaren arabera: plangintzaren ingurukoak; sozioekonomikoak; kulturalak; generoaren ingurukoak; iraunkortasunaren, ingurumenaren eta arroen babesaren arlokoak; erabilaren, jabetzaren, antolakuntzaren eta eskaintza eta eskaeraren kudeaketaren ingurukoak eta abar.
- 25.7. Iraunkortasuna: dirulaguntza bukatu ondoren proiektuaren emaitzek eta produktuek denboran iraungo dutela bermatzeko zein baliabide erabiliko diren jakiteko aukera emango duten informazioa eta dokumentazioa erantsi beharko zaizkie proposamenei.
- 25.8. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena: 140.000,00 euro.
- 25.9. Aurrekontua. Aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da, partidaz partida —finantzaketan lagunduko duten entitateak adieraziz— eta jardueraz jarduera. Aurrekontu horretan jaso beharko da nola Gasteizko Udalarik eskatutako zenbatekoaren % 80, gutxienez, zuzeneko gastuetara bideratu beharko den, auditoria-gastuak eta 9.6 puntuan adierazitakoak alde batera utzita.
- 25.10. Dirulaguntza eskatzeko inprimakiak gehienez 20.000 hitzetan bete behar dira (ikus 20.7).

26. Jarraipen-txostenak

- 26.1. Onuradunek bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko dute —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekintza bukatzen denetik.
- 26.2. Proiektuaren justifikazio- eta jarraipen-txostenek, deialdi osorako betebeharrak komunez gain, sistemak eraikitze prozesu osoari buruzko informazio grafiko espezifiko eta zehatza jaso beharko dute, argazkiak eta/edo bideoak barne, eta ez bakarrik burututako elementuei buruzkoa. Horren guztiaren xedea da azkenean gauzatutakoaren eta egindako aldaketen ezaugarri teknikoak, egiturazkoak eta abar dokumentatu eta egiaztatzea ahal izatea.

27. US ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Epea: deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak, 2026ko irailaren 25era arte.



28. US ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

Oinarrien 3. eranskinean biltzen dira US ataleko balioespen-irizpideak.



USA ATALA: URAREN ETA SANEAMENDUAREN ARLOKO URTEKO PROIEKTU KATEATUEN ALDEZ AURREKO AUKERAKETA

29. USA atalaren xedea

29.1. Atal honen xedea hau da:

a. Gehienez bi urteko bost proiektu aurrez hautatzea, hau da, urteko esku hartzeak, bi urteko jarraitutasuna izateko planteatuak (2027 eta 2028a hartu behar dute), eta biztanleriari ura eta/edo saneamendua eskuratzeko bidea ematea izan behar dute helburu.

b. Hala badagokio, aurrez hautatutako proposamenetako sistemak eta azpiegiturak behin betiko diseinatzeko behar diren azterlan teknikoak diruz laguntzea.

29.2. Uraren zikloaren edozein partetan esku hartzeko proiektuak onartuko dira, azpiegituren edo sistemen arloko osagaia gailentzen delarik. Sistemak eraiki edo bukatzera bideratutako eskabideak aurkeztu ahal izango dira, dirulaguntza bukatutakoan xede-populazioari benetako zerbitzu bat ziurtatzeko aukera eman beharko baitute.

29.3. Deialdi honetan aurrez hautatutako proiektuek 2027an egikarituak izateko finantzaketa eskatu ahal izango dute, urte horretako dirulaguntzen urteko deialdiaren barruan haien zat berariaz prestatutako atalean (US):

a. 2027an dagoen aurrekontu-kredituaren arabera izango dira nahiz US atalaren barruan 2026an diruz lagundu ahal izango diren proiektuen kopurua, nahiz Udaletik jaso ahal izango duten dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa. Zifra biak (proiektuen gehieneko kopurua eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa) 2027rako dirulaguntzen deialdian adieraziko dira.

b. USA ataleko deialdi honen esparruan, proiektu-ideiak aurrez aukeratzeko eta formulazioa osatzeko, proiektu eta urte bakoitzeko 140.000,00 euroko zenbatekoa hartuko da erreferentzia gisa Udalaren gehieneko dirulaguntza kalkulatzeko; esan bezala, zenbateko horrek ez dakar berez hurrengo ekitaldietarako konpromisorik.

30. Proiektuak hautatzeko prozedura

30.1. Hiru fase izango dituen prozedura bat jarraituko da proiektuak aurkeztu eta hautatzeko:

30.2. 1. fasea. Proiektuen alde aurreko hautaketa, laburpen-agirian oinarrituta.

a. Fase honetan, gehienez ere eskabide bat onartuko da entitate eskatzaile bakoitzeko.

b. Laburpen-agiri bat aurkeztu beharko dute eskatzaileek, eta, horrekin batera, eskatzen duten finantzaketaren zenbatespena, partidaz partida, urte bakoitzerako (2027 eta 2028).

c. Behar bezala landutako proiektu-idea baten azalpen laburtua jaso beharko du laburpen-agiriak. Laburpen-agiriaren eredia udalaren webgunean egongo da eskuragarri : www.vitoria-gasteiz.org/lankidetza. Laburpen-dokumentuek 8.000 hitz izango dituzte gehienez (Ikus 20.7 art.). Ez da eranskinik onartuko; sintesi-dokumentua baino ez da aurkeztu behar.

d. Laburpen-agirian, entitate eskatzaileak gehienez 15.000 euroko dirulaguntza eskatu ahal izango du ur- eta/edo saneamendu-sistemak eta -azpiegiturak behin betiko diseinatzeko beharrezkoak diren azterlan teknikoak egiteko, eta kanpoan geratuko dira proiektuak formulatzeari per se lotutako zereginak, hala nola oinarritzko ildoak ezartzea, emaitzen eta helburuen adierazleak egitea, genero-inkaktuaren aurretiazko ebaluazioa, diagnostikoak eta abar. Dirulaguntza hori, gehienez ere, guztizkoaren ehuneko 60 izango da. Ezingo da baliatu entitate eskatzailearen langile-kostuei aurre egiteko. Dirulaguntzek ez dituzte barne hartuko zeharkako kostuak.

e. Gasteizko Udaleko GLZak ebaluatuko ditu laburpen-agiri horiek, eta, prozedura horren bitartez, deialdiaren hurrengo faseetarako onartutako proiektuak hautatuko dira.

30.3. 2. fasea. Behin betiko proiektuak formulatzea.

a. Formulazio horretan lagundu eta ikuskatze-lanak egingo ditu GLZk, baita, egoki bada, beste udal zerbitzu batzuek ere.



b. Horretarako, entitate eskatzaileen eta Gasteizko Udalaren arteko batzorde mistoak eratu ahal izango dira —bilera eta komunikazioen bitartez jardungo dute—, harik eta behin betiko formulazioa egin arte.

c. Fase honetan, eskuragarri dagoen dokumentazioa eta jada eginda dauden azterlan teknikoak eskatu ahal izango ditu GLZk, eta baita horretarako emandako dirulaguntzaren kontura egiten direnak ere. Azterlan teknikoak egiteko emandako dirulaguntzak 2026ko azaroaren 30a baino lehen exekutatu beharko dira.

30.4. 3. fasea. Behin betiko hautaketa eta deialdiaren ebazpena.

a. Fase honi buruz berriazko deialdi bat (US atala) egingo da 2027an.

31. 2027-2028 biurteko proiektuen betekizunak

Deialdi honetan jasotakoaren arabera hautatuko diren eta 2027ko deialdiko AS atalera aurkeztu ahal izango diren bi urteko proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

31.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 6. eta 7. artikuluetan galdatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

31.2. Proiektua gauzatzeko epea ezingo da izan 12 hilabetetik gorakoa, dirulaguntza ordaintzen denetik.

31.3. Lortu nahi diren emaitzak: kalitateko ur- edota saneamendu-zerbitzu publikoak benetan baliatzeko aukera eman beharko dute proiektuaren emaitzek, xede-populazioak bere gain hartzeko moduko kostuarekin.

31.4. Uraren sektoreko esku-hartzeek, teknologia, legedi eta finantzen arloko alderdiak ez ezik, hauek ere aintzat hartu beharko dituzte, testuinguruaren arabera: plangintzaren ingurukoak, sozioekonomikoak, kulturalak, generoaren ingurukoak, iraunkortasunaren, ingurumenaren eta arrien babesaren arlokoak, erabileraren, jabetzaren, antolakuntzaren eta eskaintza eta eskaeraren kudeaketaren ingurukoak eta abar.

31.5. Eskatutako dirulaguntzaren % 50, gutxienez, edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzuak hornitzeko azpiegiturak eta sistemak eraikitzeko edo hobetzeko izango da.

31.6. Entitate eskatzaileak edo bazkide lokalak uraren eta saneamenduaren sektorean duen esperientzia, bai eta bien arteko alde aurreko harremana ere.

31.7. Bideragarritasuna. Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlanen dokumentazioa aurkeztu, eta horiek egin dituzten pertsona edo entitateen esperientziarena. Uraren eta saneamenduaren arloko bi urteko behin betiko proiektuei eskatuko zaien dokumentazio teknikoak 9. eranskinean identifikatutako alderdiak jaso beharko ditu:

31.8. Iraunkortasuna: dirulaguntza bukatu ondoren proiektuaren emaitzek eta produktuek denboran iraungo dutela bermatzeko zein baliabide erabiliko diren jakiteko aukera emango duten informazioa eta dokumentazioa erantsi beharko zaizkie proposamenei.

31.9. Aurrekontu-zenbatespenerako, aurretiazko hautaketan Udalaren gehieneko dirulaguntza 140.000,00 euro izango da proiektu eta urte bakoitzeko; kopuru horrek, 29.3 artikuluan adierazi den bezala, ez dakar hurrengo ekitaldietarako konpromisorik.

31.10. Proiektuen aurrekontuetan, deialdi honetako 9. eta 10. Artikuluetan jasotako gastu-kapituluekin lotutako kontzeptuak sartu ahal izango dira (dirulaguntzari egotz dakizkiokeen zuzeneko eta zeharkako kostuak).

32. Jarraipen-txostenak

Onuradunek bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko dute —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekinga bukatzen denetik.

33. Eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Epea: eskabideak deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta laburpen-agiriak aurkezteko gehieneko epea 20 egun baliiodunekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik.



34. USA ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

USA ataleko balioespen-irizpideak 4. eranskinean daude jasota.



LT ATALA: LAGUNTZA TEKNIKOKO PROIEKTUAK

35. LT atalaren xedea

35.1. LT atalaren xedea da Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren laguntzarekin abian jarritako proiektuei beharrezko laguntza teknikoa ematea, diru-sarrerak sortzeko jarduerak eta oinarritzko zerbitzuak finkatzearen. Oinarritzko zerbitzutzat jotzen dira pertsonen eta komunitateen bizitza osasungarrirako funtsezkoak diren zerbitzuak eta azpiegiturak, hala nola energia, edateko ura, saneamendua, hondakinen kudeaketa, hornikuntza-merkatuak, hezkuntza, osasuna e inklusio soziala.

36. LT ataleko lehentasunak

36.1. Honelakoak izan ahalko dira jarduerak:

a. Oinarritzko zerbitzuen edo jarduera ekonomikoen kudeaketa hobetzea. Horrek kanpo-aholkularitza eska dezake, baina oso espezifiko eta kualifikatua izan behar du.

b. Alderdi hauen hobekuntza: merkaturatzea, balio erantsia sortzea, merkatuetarako sarbidea, biltegitratzea, prozesatzea eta abar ere, baldin eta horrek zerikusi zuzena badu bere garaian abian jarritako jarduera ekonomikoaren iraunkortasunarekin.

c. Ekipamenduen eta/edo zerbitzuen bizitza baliagarria luzatzea, Bai teknologia eraginkorrako aplikatuta (horrek gaikuntza ekar dezake, baina oso justifikatua eta espezifiko) Zerbitzuko azpiegiturek erabileraren, klimaren eta bestelakoen ondoriozko narriadura murriztu edo zuzenduta.

d. Bigarren mailako egiturak, publikoak zein pribatuak, abian jartzeko laguntza eta aholkularitza, oinarritzko zerbitzuei, kostuei, hornidurei, operazioari eta mantentze-lanei eta abarri modu mankomunatuan heldu ahal izateko.

37. Zein proiektu eta entitate aurkez daitezkeen LT atalera

37.1. LT atalean, honako entitate hauek baino ezingo dute aurkeztu eskabidea: bere garaian Gasteizko Udalaren dirulaguntza lortu zutenak oinarritzko zerbitzuetarako edo diru-sarrerak sortzeko jardueretarako jardunetarako, zeintzuk beren unean egikaritu eta bururatu baitziren, eta egun funtzionatzen jarraitzen baitute.

38. LT ataleko behin betiko proiektuek bete beharreko betekizunak

38.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 6. eta 7. artikuluetan galdatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

38.2. Proposamen hauek bakarrik onartuko dira:

a. Laguntza teknikoa berariaz eskatzen dutenak. Bestelako laguntzak tokiko ekarpenzat edo beste finantzatzaile batzuen ekarpenzat har daitezke, baina ez dira diruz lagunduko.

b. Premien diagnostikoa egina dutenak. Atal hau ez da premia horiek identifikatzeko. Proiektuaren identifikazio-, diseinu- eta abiarazte-faseetan agerian geratu ez ziren premiak izan behar dute, eta ageriko bihurtu direnak:

- Udalaren edo beste erakunde baten ex post ebaluazio baten ondoren.
 - Proiektua abian jarri ondorengoak, testuinguruaren aldaketa esanguratsuak izanagatik.
- c. Proiektu zabalago baten barruko finantzaketa osagarria ez direnak, ezta proiektu bat gauzatzeko epearen luzapen edo proiektuaren fase berriak finantzazioa ere.

38.3. Dirulaguntza exekutatzeko epea ezingo da izan 12 hilabete baino gehiago, proiektua egikaritzen hasten denetik hasita.

38.4. Lortu nahi diren emaitzak: proiektuaren emaitzen parte handi batek begien bistakoa izan beharko du, eta xede-populazioaren bizi-baldintzak nabarmen hobetu beharko ditu.



38.5. Iraunkortasuna: dirulaguntza bukatu ondoren proiektuaren emaitzek eta produktuek denboran iraungo dutela bermatzeko zein baliabide erabiliko diren jakiteko aukera emango duten informazioa eta dokumentazioa erantsi beharko zaizkie proposamenei.

38.6. Gasteizko Udalak urtean, gehienez ere, egingo duen ekarpena: 60.000,00 euro

38.7. Behin betiko proiektuetarako dirulaguntzak eskatzeko formularioak betetzeko gehienez ere 10.000 hitz erabili beharko dira (Ikus 20.7 art.).

38.8. Aurrekontua. Aurrekontu xehatua aurkeztu beharko da, partidaz partida —finantzaketan lagunduko dutenak adieraziz— eta jardueraz jarduera. Kontuan hartu behar dira LT atalerako aurrekontu-partiden mugak (9. eta 10. artikuluetan jasota).

39. Jarraipen-txostenak

Onuradunek bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko dute —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekintza bukatzen denetik.

40. LT ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Epea: 20 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira eskabideak, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

41. LT ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

Oinarrien 5. eranskinean biltzen dira LT ataleko balioespen-irizpideak.



PT ATALA: PROIEKTU TXIKIAK

42. PT atalaren xedea

42.1. PT atalean, entitate eskatzaileak eta Gasteizen bizi den haren oinarri sozialak oso harreman zuzena duten leku eta herrietan egitekoak diren proiektu txikietarako dirulaguntzak emango dira.

42.2. Proiektuen ezaugarriak:

a. Honelako esku-hartzeak ahalbidetzeko bereziki egokitzat jotzen da PT atala: ekipamendu- nahiz eraikuntza-ekintza puntualak, ur-sistema txikiak, ekipo edo zerbitzu jakin batzuekin zerikusia duten prestakuntza-ekintza puntualak, eta garapenerako lankidetzaren arloan esperientzia mugatua duten entitateen esku-hartzeak. Ez da dirulaguntzarik emango iparreko herrialdeetan bizi direnek garapen-bidean dauden herrialdeetara egiten dituzten bidaietarako.

b. Modu positiboan balioetsiko da esperientzia handirik ez duten kolektiboek proposatzen dituzten ekintzek esperientzia handiagoa duten GGKEen aholkularitza edo laguntza izatea.

43. PT ataleko behin betiko proiektuek bete beharreko betekizunak

43.1. Baztertu egingo dira deialdi honen 6. eta 7. artikuluetan galdatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten proiektuak.

43.2. Proiektuarekiko, populazioarekiko edo herriarekiko harremana. Gasteizko kolektibo batek, dela eskabidea egiten duen entitatekoa, dela proiektuan zuzenean inplikaturako entitatekoa, harreman zuzena eta jarraitua eduki beharko du, eta agiri bidez egiaztatu beharko da hori.

43.3. Emaidza-mota. Proiektuaren emaitzek begien bistakoak edo praktikoak izan beharko dute.

43.4. Finantza-programazioa: aurrekontu soila.

43.5. Bideragarritasuna. Behar izanez gero, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterlanen dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta landu dituztenen esperientziaren ingurukoa.

43.6. Dirulaguntza exekutatzeko epea ezin da izan sei hilabete baino gehiago, proiektua egikaritzen hasten denetik kontaktzen hasita.

43.7. Gasteizko Udalak gehienez ere egingo duen ekarpena: Atal honetan ematen diren dirulaguntzek ezingo dute gainditu 20.000,00 euroko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, aldez aurretik erakunde publiko batek garapenerako lankidetzako proiektu baterako emandako dirulaguntza bat gutxienez kudeatu duten entitateen kasuan eta eskabidea betebeharrak betetzen duen entitate batekin batera aurkezten dutenen kasuan. Zirkunstantzia horiek egokitu ezean, dirulaguntzak ezingo du gainditu 10.000,00 euroko kopurua.

43.8. Behin betiko proiektuetarako dirulaguntzak eskatzeko formularioak betetzeko, gehienez ere 10.000 hitz erabili beharko dira (Ikus 20.7 art.).

43.9. Debeku orokorra: PT atalera ezingo da aurkeztu Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren beste deialdi edo atal batzuetan aurkeztutako proiektuak osatzeko eskabiderik, ezta lehendik beste erakunderen batengandik egikaritze-aldia osorik edo partez estaltzen duen dirulaguntzarik jaso duen proiekturik ere.

44. Jarraipen-txostenak

Onuradunek bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko dute —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekintza bukatzen denetik.

45. PT ataleko eskabideak noiz aurkeztu behar diren

Epea: deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak, 2026ko ekainaren 30era arte.



46. PT ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

Oinarrien 6. eranskinean biltzen dira PT ataleko balioespen-irizpideak.



GDLB ATALA: GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN LARRIALDIKO BABESA

47. GDLB atalaren xedea

47.1. GDLB atalaren xedea: giza eskubideen defendatzaileak arrisku larriko egoeren aurrean babesteko ekintza urgenteak eta puntualak laguntzea.

47.2. Deialdi honetan, organizazio eta herrialde bakoitzeko gehienez eskabide bat lagundu ahal izango da diruz. Baldin eta entitate eskatzailea jarduera egingo den herrialdean badago.

48. GDLB atalaren lehentasunak

Honelakoak izan ahalko dira jarduerak:

48.1. Osotasun fisikoa arriskuan duten pertsonak babestea edo laguntzea zuzenean lekuan bertan —gerretan dela, giza eskubideak sistematikoki urratu eta zigorrik jartzen ez den egoeretan dela—, honelako ekintzen bidez:

a. Giza eskubideen defendatzaileak eta haien senideak edo hurbilekoak babestea jurisdikzio eskudunen aurrean, baldin eta haien osotasun fisikoa mehatxatuta badago.

b. Bizitza, osotasun fisikoa eta segurtasun pertsonala babesteko bermeak, besteak beste, honako behar hauek estal ditzaketanak: joan-etorriak, ostatu segurua, mantenua, justizia-mekanismoetarako sarbidea, aldi baterako birkokapena auzo-herrialdeetan, osasun-laguntza...

49. Ekintzak hautatzeko prozedura

49.1. Deialdi hau konkurrentzia sinplearen bidez arautuko da. Hau da, funts erabilgarriak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak jaso ahala banatuko dira, aurrekontu-kreditua agortu arte, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

49.2. Eskaera aurkeztu aurretik, entitateak aurretiazko kontsulta egin beharko dio Gasteizko Udalaren GLZari, eta aurretiazko kontsultaren fitxa erabiliko du ekintzaren egokitasuna eta kreditu-erabilgarritasuna ezartzeko. Dirulaguntza eskatzeko unean dagoen kreditua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, horren berri emango zaio entitate eskatzaileari, kontuan har dezan.

49.3. Eskaeraren erregistroa ahalik eta lasterren egin behar bada ere, posta elektronikoz aurkeztu ahal zaio GLZri.

49.4. Eskabidea egiteko unean krediturik ez badago, entitateak aukera izango du aurkezpen-dataren arabera ordenatutako itzarote-zerrenda batean sartzeko. Aurrekontua handituz gero, GLZk kontsulta egingo die entitate eskatzaileei, ezarritako hurrenkeraren arabera, ekintza garatzeko aukerari buruz eta, ondorioz, lehenago eskatutako dirulaguntzaren onespenerari buruz.

49.5. Segurtasun-arrazoiengatik pertsona babestuen anonimotasuna gorde behar den kasuetan, GLZk, entitateak hala eskatuz gero, kode bat (seudonimizazioa) emango du, Gasteizko Udalean erregistratutako dokumentuetan identifikazio-datuak eta sentsibilitate bereziko beste datu batzuk ordezteko.

49.6. Babes-mekanismoekiko koordinazioa:

a. Entitate eskatzaileek proposamenean jakinarazi beharko dute ea giza eskubideen defendatzaileak:

- Izena emanda dauden giza eskubideen defendatzaileei babesa emateko estatu-mekanismoren batean..
- Eskatu dituen edo badituen Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren (CIDH) kautelazko neurriak edo Gorte Interamerikarraren behin-behineko neurriak, edo beste kontinente batzuetako haien baliokideenak.
- Haien kasua NBEko giza eskubideen kontalari bereziek jakinarazi duten

b. Informazio horrek honetarako balioko du:



- Udalari eskatutako neurrien eta beste instantzia batzuek ematen dituzten neurrien arteko osagarritasuna baloratzeko
 - Mekanismo horiekin koordinatzea, hala dagokionean eta defendatzailearen baimenarekin.
 - Finantzaketan bikoiztasunak saihesteko.
- c. Estatuko edo nazioarteko neurriak egotea ez da baztertzeko arrazoia izango, Udalari eskatutako neurriak osagarriak direla edo estatuko/nazioarteko neurriak nahikoak edo eraginkorrek ez direla justifikatzen denean.

50. GDLB ataleko proiektuek bete beharreko betekizunak

50.1. GDLB ataletik kanpo geratuko dira larrialdi edo berehalako mehatxu egoerei erantzuten ez dieten giza eskubideak babesteko egiturazko proiektuak. GDLB atala honako hauentzat bakarrik da:

- a. Premiazko babes-neurriak defendatzaileen osotasun fisikoaren aurkako mehatxu larri eta hur-hurrekoen aurrean.
- b. Ekintza puntualak, gehienez 6 hilabetekoak, ordaintzen direnetik.
- c. Aldez aurretik programatu ezin diren salbuespenezko neurriak, egiturazkoak eta epe luzerakoak ez direnak.

50.2. Ekintzak jatorrizko lurraldean eta hurbilen dauden eremuetan egin beharko dira, defendatzaileak lan egiten duen auzo-herrialdeak barne, eta defendatzaile hori edo beraren hurbileko pertsonak zuzenean babesteko neurriak izan beharko dira. Atal honetan ez dira diruz lagunduko Espainiako edo Europako lurraldeko ekintzak, ez eta eragin eta sentsibilizaziokoak ere, edozein tokitarako planifikatzen direla ere.

50.3. Ekintzak egikaritzeko epea:

- a. Gehienez ere sei hilabete izango dira, dirulaguntza ordaintzen denetik kontatzen hasita.
- b. Berehalako mehatxuak ordainketa egin aurretik premiazko babes-neurriak aktibatzea eskatzen badu, entitateak bere esku izango du bere ardurapeko gastuak aurreratzea, eta eskaera erregistratu baino 2 hilabete lehenago egindakoak lagundu ahal izango dira diruz.

50.4. Behin betiko proiektuetarako dirulaguntzak eskatzeko formularioak betetzeko, gehienez ere 10.000 hitz erabili beharko dira (Ikus 20.7 art.).

50.5. Gasteizko Udalaren gehieneko ekarpena 10.000,00 eurokoa izango da ekintza bakoitzeko.

51. Jarraipen-txostenak

51.1. Onuradunek bukaerako txostena bakarrik aurkeztu beharko dute —narrazioa eta finantzen azalpena—, hiru hilabeteko epean, ekintza bukatzen denetik.

51.2. Justifikazio-modalitatea, oro har, Justifikazio Kontu Sinplifikatua izango da.

a. Justifikazioko Kontu Sinplifikatua erabiltzeak onuradunen segurtasuna arriskuan jartzen badu edo neurrien eraginkortasuna arriskuan jartzen badu, entitate eskatzaileak organo emaileari eskatu ahal izango dio, ordainketa egin baino lehen edo exekuzioaren lehen hilabetean, exekuzio-ziurtagiriaren bidez justifikatzeko.

b. Eskaerak segurtasun-arriskua oinarritu beharko du, eta honako hauetan oinarritu ahal izango da:



- Defendatzailearen aurkako mehatxu espezifikoak, identifikazio-dokumentazioa minimizatzea gomendatzen dutenak.
- Babes-neurrien izaera erreserbatua (deklaratu gabeko birkokapena, aldi baterako babes).
• Estatuaren edo paramilitarren zainketa egoera, dokumentazioa onik gordetzea arriskuan jartzen duena.
- Egiaztagiri formalak lortzeko zailtasun objektiboak (eskudirutan ordaintzea landa-eremuetan, zerbitzu informalak).

51.3. GLZk jarduera egikaritu izanaren ziurtagiria ematea eskatuz gero, entitate eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Egikaritutako ekintzaren aurrekontu kuantifikatua eta zehatza.
- Dagozkion gastuen egiaztagiriak.
- Aplikatutako prezioak merkatukoak baino handiagoak ez direlako adierazpena
- Entitateak proposatutako egiaztapen-modu objektiboak (giza eskubideen arloko tokiko eta/edo nazioarteko erakundeen txostenak, nazioarteko mekanismoekiko komunikazioak, hirugarren egiaztatuek egiaztatzea...)
 - a. GLZk informazio osagarri anonimizatua eskatu ahal izango du, eta betearazpena zeharkako iturriekin kontrastatu ahal izango du, betiere defendatzaileen anonimotasuna errespetatuz eta aurkeztutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna bermatuz.

52. Noiz aurkeztu behar diren GDLB ataleko eskabideak

52.1. Aurkezteko epea: deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko azaroaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak, edo, bestela, kreditu erabilgarria agortu arte, lehen gertatzen dena.

52.2. Kreditua 2026ko azaroaren 15a baino lehen agortzen bada, ebazpen bat argitaratuko da ALHAOn, deialdiaren itxiera jakinarazteko. Eskabideak ebatzteke dituzten entitateak itxaron-zerrenda batean sartuko dira, 49.3 artikulua araberak.

53. GDLB ataleko proiektuak balioesteko irizpideak

53.1. Ekintzak GLZk balioetsiko ditu, eta txosten tekniko bat egingo du honako hauei buruz: urgentziatzko baldintzak betetzen diren, proposatutako babes-neurrien egokitasuna eta aurrekontu-erabilgarritasuna.

53.2. Ekintza horiek presazkoak direnez, balorazioa gehienez 10 egun balioduneko epean egingo da, dokumentazio osoa aurkezten denetik aurrera.

53.3. Oinarrien 7. eranskinean biltzen dira GDLB ataleko balioespen-irizpideak.



1. Eranskina: Sartzeko betekizuna

USA, PT eta GDLB ataletan, kanpoan utziko dira Gasteizen egitura, gaitasuna eta jarduera izateari dagokion betebeharrak minimoak betetzen ez dituzten entitate eskatzaileak.

Gainera, PT atalaren kasuan, entitateek ondorengo taulan jasotzen den baldintza baztertzailerak bete behar dute.

Gasteizen egitura, gaitasuna eta jarduera izateari dagokion gutxienerako betekizuna betetzeko, zehaztutako irizpideetatik lau puntu bete behar dira PT atalean, eta bost USA eta GDLB ataletan.

Irizpideak beteko badira, gutxienerokotzat jotzen diren balio horietara iritsi beharko da.

“Egiaztatzeko moduak” zutabearen adierazten diren agiriakoren bat aurkeztuz egiaztatuta beharko da hori.

Irizpideak “Gutxienez” zutabearen ezarritakoa betetzen ez bada —edo egiaztagiririk aurkezten ez bada—, puntuazioa zero izango da. “Eselepena” zutabearen zehazten dira irizpide bakoitzerako puntu posibleak.

1. eranskineko dokumentazio hori alde aurretik —eskabidea egin aurretik— aurkeztu ahal izango da.

PT ATALERAKO BETEBEHARRAZTERTZAILERAK		
Irizpidea	Gutxienez	Egiaztatzeko moduak
Entitate eskatzaileak ez ditu kudeatu 250.000,00 eurotik gora, azken kontabilitate-urtean (2025).	Betetzen da	Entitate eskatzailearen kontuen azken balantzea, Zuzendaritza Batzordeak onetsia eta diruzaintza-eginkizunak dituen pertsonak edo legezko ordezkariak sinatua.

GASTEIZEN EGITURA, GAITASUNA ETA JARDUERA IZATEARI DAGOKION BETEBEHARRA				
Irizpideak	Gutxienez	Unitatea	Eselepena	Egiaztatzeko moduak
Eskabidea egiten duen entitateak Gasteizen du egoitza nagusia. Taldeek aurkeztutako eskabideen kasuan, hura eratzten duten entitateetako gutxienez batek bete behar du irizpidea, eta eskabidea egiten duen entitatearen puntuazioari gehituko zaio.	Betetzen da		1	Entitatearen estatutuak, edo Eusko Jaurlaritzaren elkarrean edo fundazioen erregistroan izena emanda egotea.
Boluntarioak hirian, 2025-01-01etik.	5	Boluntarioak	puntu 1, 5 boluntariotik 20ra badira. 2 puntu 20 boluntario baino gehiago badira.	Eusko Jaurlaritzaren Boluntariotzako Erakundearen Errola Orokorrean egindako izen ematea, Araba Lurralde Historikoan. Edo, bestela, Boluntarioen aseguruia —indarrean dagoena— ordaindu izanaren egiaztagiria, non Araban aseguratu den boluntario-kopurua agertuko baita.
Azken 12 hilabeteetan hirian izan dituzten langile teknikariak.	Lanaldi erdiko kontratua		1	Gizarte Segurantzako kotizazioaren ziurtagiriak, non ageri den kontratatutako pertsona horiek Araban ari direla kotizatzen. Edo: Altan emanda dauden langileen txostena



GASTEIZEN EGITURA, GAITASUNA ETA JARDUERA IZATEARI DAGOKION BETEBEHARRA

Irizpideak	Gutxienez	Unitatea	Esleipena	Egjaztatzeko moduak
Entitateak Hegoaldeko herrialdeetan 2025-01-01az geroztik egikaritu dituen proiektuetan Gasteizko boluntarioek lekuan bertan eman duten laguntza (gutxienez 20 egun urtean).	1	Pertsona, hileko	Puntu pertsona bateko edo biko 2 puntu 3 pertsona edo gehiago badira	Entitateak edo boluntarioak izenpetutako txosten laburra, orri bat edo bikoia —txartelen kopiarekin batera—, non profil pertsonala, laguntza eman zuen proiektua, tokia, aldia, zereginak, esperientziaren balorazioa eta beste azalduko baitira.
2025-01-01az geroztik hirian jarduerak egikaritu dituzten sare edo taldeen kanpaina edo programa egituratuetan izandako partaidetza.	15	Jarduera-orduak	1	Sare edo taldearen buru den entitatearen ziurtagiria, eskabidea egiten duen entitateak sare edo talde horretan parte hartu duen orduen kopurua zehazten duena.
Entitateak berak antolatutako sentsibilizazio- jarduera publiko aurrez aurrekoak, gasteiztarrei zuzenduak, 2025-01-01etik.	1	Jarduera publikoak	Puntu 1, 1-5 jarduerako 2 puntu 5 jarduera baino gehiago badira.	Dokumentazio grafikoa (argazkiak, bideoak, etab.), hedapen-materiala (kartelak, sare sozialetako iragarkiak, etab.), beste entitate antolatzaile batzuen ziurtagiriak... Hedabideetan artikulua edo elkarrizketak agertu edo argitaratzea ez da jardueratzat joko, ezta informazio-buletinen zabalkundea eta erakundearen publizitate-produktuak banatzea ere.
Esku-hartze sozialeko programa propioak: lan zuzenekoak, sistematikoak eta egituratua hirian gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskua duten pertsonekin, 2025/01/01az geroztik.	1	Programa	1	Entitatearen estatutuak eta jardueren memoria, hirugarrenen ziurtagiriak, zabalkunderako materiala, etab.



2. Eranskina: UK ataleko —urteko proiektu kateatuak— baremazio-taula

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
A. PERTINENTZIA	10	10
1. Esku-hartzearen zonaren edo sektorearen berariazko premiei dagokienez		10
Testuingurua eta identifikazioa. Esku-hartzearen zona edo jarduera-sektoreko errealitate espezifikoa, premien, muga eta besteren deskribapena eta analisia.	10	
B. EKINTZAREN DISEINUA	90	90
2. Aktoreen partaidetza (ezaugarriak eta proiektuan duten egitekoaren deskribapena)		15
a) Eskubideen titularrak	6	
Proiektuan izandako parte-hartzearen deskribapena eta maila. Behar besteko informazioaren betekizuna (kuantifikatzea, sexu-generoaren araberako datuak, kokalekua).	(*)	
b) Betebeharren titularrak	5	
Proiektuan izandako parte-hartzearen deskribapena eta maila.		
c) Beste aktore batzuk	4	
Proiektuan izandako parte-hartzearen deskribapena eta maila.		
Proiektuan izan litezkeen oposizio eta oztopoak		
3. Diseinu orokorraren koherentzia		42
a) Deialdirako ezinbestekoak		
Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
Lehen urteko egikaritze-aldian aurreikusitako aurrerapenak egin izanaren <u>betekizuna</u>	(*)	
Giza eskubideak babesteko nahikoa ekintza barne hartzearen <u>betebeharra</u> (giza eskubideak babesteko proiektuetan)	(*)	
Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko <u>betekizunak</u>	(*)	
Langile lokalei dagozkien <u>betekizunak</u> : Proiektuan diharduen pertsona bakoitzaren zereginak dokumentatu beharko dira, baita jardueretan duen dedikazioaren ehunekoa ere bai.	(*)	
Proiektuaren jarraipena behar bezala egin ahal izateko sistema baten bermea	(*)	
b) Diseinuaren, koherentziaren eta bideragarritasunaren balioespena		
Estrategiak eta metodologia	5	
Kalitate teknikoa (formulazioa, plangintza, kudeaketa, antolakuntza)	8	
Emaitza zehatzak, begien bistakoak, hartzaileen bizi-kalitatean hobekuntzak dakartzatenak	5	
Inpaktu errealdien zenbatespena	5	
Aurrekontuaren xehetasuna eta egokitasuna	5	
Giza baliabideak: esperientzia eta egokitasuna	5	
Proiektuaren osagai tekniko eta teknologikoak (bidezko bada)	5	
Nazioarteko estrategia baten barruko ekintzak eta berrikuntza (lankidetzatza trianguluarra, hegoa-hegoa, etab.)	4	
4. Iraunkortasuna		8
Proiektua bukatu ondoren zerbitzu edo ekimenak jarraipena izango duelako nahikoa berme izatearen <u>betebeharra</u> (giza eskubideen babesean izan ezik)	(*)	
Jarraitutasuna edo iraunkortasuna bermatzeko neurriak	8	
5. Zeharkako alderdiak txertatzea		25
a) Deialdirako ezinbestekoak		
Eskubide objektiboen ikuspegia —diskurtsotik harago— izatearen <u>betekizuna</u> (ikus	(*)	



deialdia)			
Genero-berdintasunaren arloko gutxieneko <u>betebeharrak</u>	(*)		
Hiriko kolektibo edo entitateen lankidetzak edo partaidetzak	(*)		
Irudiak eta informazio- eta komunikazio-baliabideak eskura jarri ahal izatearen <u>betekizuna</u>	(*)		
b) Eskubideen ikuspegia		3	
c) Genero berdintasuna			
Emakumeak ahalduntzeko eta genero-berdintasunerako ekintzak eta neurriak		6	
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan		6	
d) Gasteizetik lotura eta eragina (ikuspegi lokal-globala)			
Proiektuaren gaian espezializatutako hiriko entitate edo kolektiboen lankidetzak		5	
Migratzaileen kolektiboen eta GGKEaren arteko lankidetzak (bidezko bada)		2	
Hiriko beste entitate edo kolektibo batzuekin elkartzeko eta trukatzeko ekintzak		2	
e) Proiekturako pertinente diren beste batzuk			
Proiektuaren testuinguru lokalean pertinenteak diren zeharkako bestelako alderdiak		1	



3. eranskina: US ataleko —ura eta saneamendua— baremazio-taula

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
A. PERTINENTZIA	10	10
1. Esku-hartzearen zonaren edo jarduera-sektorearen berariazko premiei dagokienez		10
Testuingurua eta identifikazioa. Esku-hartzearen zona edo jarduera sektoreko errealitate espezifikoaren, premien, mugen eta besteren deskribapena eta analisia.	10	
B. EKINTZAREN DISEINUA	90	90
2. Aktoreek proiektuan duten zeregina		10
Esperientziaren eta lankidetzaren arloko <u>betekizunak</u>	(*)	
Behar besteko informazioaren betekizuna (kuantifikatzea, sexu-generoaren araberako datuak, kokalekua).	(*)	
a) Eskubideen titularrak		4
Eskubideen titularraren deskribapena eta partaidetza-maila (parte hartzen duen populazio barne).		
b) Betebeharren titularrak		4
Proiektuan izandako parte-hartzearen deskribapena eta maila.		
c) Beste aktore batzuk		2
Proiektuan izandako parte-hartzearen deskribapena eta maila.		
Proiektuan izan litezkeen oposizio eta oztupoak		
3. Diseinu orokorraren koherentzia		34
Behar besteko informazioaren, koherentziaren eta bideragarritasunaren <u>betekizuna</u> .	(*)	
arazoen analisiari erantzuten dio	(*)	
Betekizuna: identifikatutako kanpoko faktoreak aintzat hartzen ditu (arriskuak, zeinek zer hartzen duen bere gain)	(*)	
Aurrekontuaren eta finantzaketaren arloko <u>betekizunak</u>	(*)	
Langile lokalei dagozkien <u>betekizunak</u> : Proiektuan diharduen pertsona bakoitzaren zereginak dokumentatu beharko dira, baita jardueretan duen dedikazioaren ehunekoa ere bai.	(*)	
Proiektuaren jarraipena behar bezala egin ahal izateko sistema baten bermea	(*)	
Irudiak eta informazio- eta komunikazio-baliabideak eskura jarri ahal izatearen <u>betekizuna</u>	(*)	
Estrategiak eta metodologia		5
Kalitate teknikoa (formulazioa, plangintza, kudeaketa, antolakuntza)		8
Proiektuak hasierako proiektuarekin duen koherentzia, globala		4
Emaitza zehatzak, ukigarriak, helmugako herrialdeko herritarren bizi kalitatearen hobekuntzak eta edateko uraren eta kalitateko saneamenduaren zerbitzu publikoak dakartzatenak.		4
Giza baliabideak: esperientzia eta egokitasuna		4
Inpaktu errealisten zenbatespena		4
Proiektuaren aurrekontu orokorraren xehetasuna eta egokitzapena		5
4. Bideragarritasuna eta iraunkortasuna		26
a) Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa		18
Baliabide hidrikoaren eskuragarritasuna (kopurua eta kalitatea)	(*)	
Baldintzatzaileei, baliabideei eta behar teknikoei buruzko informazioa		
Testuingurura eta mantentzeko aukeretara egokitutako teknologiak erabiltzea		
Proiektu teknikoaren bideragarritasuna eta kalitatea		
Proiektu teknikoaren aurrekontuaren zehaztasuna eta egokitasuna		
Aplikaturako prezioen erreferentziak		
b) Iraunkortasuna		8



Obrak egingo dituen entitatea: esperientzia, espezializazioa eta egokitasuna			
Kudeaketari eta iraunkortasunari laguntzeko sistema bat aurreikustea			
5. Zeharkako alderdiak txertatzea			20
a) Deialdirako ezinbestekoak			
Eskubide objektiboen betekizuna, diskurtsoetik harago (ikus DEIALDIA)	(*)		
Genero-berdintasunaren arloko gutxieneko betekizuna	(*)		
Kolektiboen inplikazioari eta informazioari dagokion betekizuna	(*)		
b) Genero-berdintasuna		12	
Emakumeak ahalduntzeko eta genero-berdintasunerako ekintzak eta neurriak			
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan			
c) Gasteizekin duen lotura eta Gasteizen izango duen inpaktua (ikuspegi lokala-globala)		6	
Migratzaileen kolektiboen eta GGKEaren arteko lankidetzaren bidezko bada			
Gasteizen proiektuaren gaian espezializatuta dauden hiriko entitate edo kolektiboen lankidetzaren bidezko bada			
d) Proiekturako pertinente diren beste batzuk		2	
Proiektuaren testuinguru lokalean pertinenteak diren zeharkako bestelako alderdiak			



4. eranskina: USA ataleko laburpen-agirien baremazio-taula

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
A. PERTINENTZIA	40	40
1. Deialdiari dagokionez		12
A) Helburu sozialen <u>betekizuna</u>	(*)	2
b) Ahalmenak sendotzea (gizarte-erakundeak, instituzioak, pertsonak...)		5
c) Emaizta-motari dagokionez		5
<u>Betekizuna</u> : Uraren eta/edo kalitateko saneamenduaren zerbitzu publikoak egiaz eta helmugako herrialdeko herritarrentzako kostu onargarrian eskuratu ahal izatea.	(*)	
Emaizta zehatzak eta ukigarriak izatearen <u>betekizuna</u> .	(*)	
2. Esku-hartzearen zonaren edo jarduera-sektorearen berariazko premiei dagokienez		15
Testuingurua eta identifikazioa. Esku-hartzearen zona edo jarduera-sektoreko errealitate espezifikoaren, premien, mugen eta besteren deskribapena eta analisia		15
3. Lekuan bertako aktoreen analisia		13
a) Eskubideen titularrak		5
Nahikoa informazioa emateko <u>betekizuna</u> (kuantifikatzea, sexuaren eta generoaren arabera bereizitako informazioa, kokalekua)	(*)	
Eskubideen titularrek esku hartzearen testuinguruan duten egoeraren deskribapena eta parte hartze maila (parte hartzen duten biztanleak barne).		
Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)		
Irigarritasun edo unibertsaltasun irizpideak		
b) Betebeharren titularrak		4
Betebeharren titularren identifikazioa, zein paper jokatzan duten testuinguruan		
c) Beste aktore batzuk		4
<u>Betekizuna</u> : tokiko bazkidearen eta/edo entitate eskatzailearen esperientzia uraren sektorean eta bien arteko aurreko esperientzia.	(*)	
Eskatzailearen, bazkide lokalaren, entitate laguntzaileen, gaitasunen, populazioarekiko harremanen eta besteren deskribapena		
Proiektuan izan litezkeen oposizio eta oztopoak		
B. EKINTZAREN DISEINUA	60	60
4. Diseinu orokorraren koherentzia		18
<u>Betekizuna</u> : erantzun dio arazoei buruz egindako analisiari.	(*)	3
Behar beste azaldu dira proiektuaren estrategia eta metodologia nagusiak.		3
koherentea da, aldean gaitasunekin	(*)	3
<u>Betekizuna</u> : identifikatutako kanpoko faktoreak aintzat hartzen ditu (arriskuak, zeinek zer hartzen duen bere gain)	(*)	2
<u>Betekizuna</u> : aktore batzuek eta besteek —betebeharren titularrek, beste aktore batzuek, eskubideen titularrek...— proiektuan jokatu duten edo ez duten papera.	(*)	3
<u>Betekizuna</u> : urte bakoitzeko gastu-kapitulu orokorren aurrekontu-zenbatespena, arrazoizkoa eta deialdian ezartzen diren mugetara moldatua	(*)	3
<u>Betekizuna</u> : Proiektuaren jarraipena behar bezala egin ahal izateko sistema baten bermea izatea.	(*)	1
5. Bideragarritasuna eta iraunkortasuna		17
a) Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa		12
<u>Betekizuna</u> : baliabide hidrikoaren eskuragarritasunaren zenbatespena (kopurua eta kalitatea)	(*)	
Baldintzatzaileei, baliabideei eta behar teknikoari buruzko informazioa. Proposatutako konponbide teknikoaren eta horren elementu nagusien deskribapena		



Testuingurura eta mantentzeko aukeretara egokitutako teknologiak			
Herrialde edo eskualdean proposatutako teknologiak eskuragarri dauden			
Egin beharreko inbertsioen alde aurreko ebaluazioa, eta horien egingarritasuna (balioespena)			
Aplikaturako prezioen erreferentziak edo zenbatespena			
b) Iraunkortasuna		5	
Aurreikusitako azpiegiturak mantentzeko baliabide teknikoaren balioespena (ordezko piezen, materialen eta besteren eskuragarritasuna)			
Sistemaren funtzionamenduari eusteko beharrezko izango den finantzaketaren balioespena (ustiapen kostuak, tarifak...)			
Kudeaketari eta iraunkortasunari laguntzeko sistema bat aurreikustea			
6. Zeharkako alderdiak txertatzea			17
a) Betekizuna: eskubide objektiboen ikuspegia, diskurtsoaz harago.	(*)		
b) Genero-berdintasuna		10	
Genero-berdintasunaren arloko gutxieneko <u>betebeharrak</u>	(*)		
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan			
c) Gasteiztarren inplikazioa		5	
Gasteizko kolektiboen inplikazioari eta informazioari dagokion <u>betekizuna</u> .	(*)		
Migratzaileen kolektiboen eta GGKEaren arteko lankidetzak (bidezko bada)			
Topaketa eta trukeak (bidezko bada)			
d) Proiekturako pertinente diren beste batzuk			
Proiektuaren testuinguru lokalean pertinenteak diren zeharkako bestelako alderdiak		2	
7. Diseinuaren definizio-maila eta ahultasunen analisia			8
Proiektuaren diseinu aurreratua eta oso definitua		4	
Diseinuaren ahultasun edo gabezien definizioa, eta proiektuaren behin betiko formulazioa egin aurretik horiek konpontzeko aukeraren analisia		3	
<u>Betekizuna</u> : Egiteke dauden formulazio-lanen aurrekontu-balioespen egokia	(*)	1	



5. eranskina: LT ataleko baremazio-taula (laguntza teknikoa)

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
A. PERTINENTZIA ETA BEHARRIZAN TEKNIKOA		20
Deialdirako ezinbestekoak:		
<u>Betekizuna:</u> Gasteizko Udalak iaz diruz lagundutako proiektuak, bere garaian dagoeneko egikarituak eta bururatuak, eta egun funtzionatzen ari direnak oraindik.	(*)	
<u>Betekizuna:</u> badago beharrizanen diagnostiko bat, honen bidez ageriko bihurtzen dena: Udalak edo beste kanpoko entitate batek ex post egindako ebaluazioa; eta/edo testuinguruko aldaketa esanguratsuak, behin abian jarrita.	(*)	
<u>Betekizuna:</u> laguntza teknikoa berezitu da, ez generikoa.	(*)	
1. LTaren beharrizanaren identifikazioa eta diagnostikoa: beharrizan argiro dokumentatu eta justifikatua.		8
2. Laguntza teknikoaren mota eta izaera: bat dator atalerako ezarritako lehentasunekin.		7
3. Espezializazioa eta kualifikazioa: laguntza teknikoa emateko beharrezkoa den aditutasuna definitu eta justifikatzea; laguntza emateko behar den profila identifikatzea.		5
B. DISEINUAREN KOHERENTZIA ETA EGIKARITZEA		50
Deialdirako ezinbestekoak:		
Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
<u>Betekizuna:</u> emaitza ukigarriak, hobekuntza argiak ekarri behar dituztenak helmugako herriko biztanleen bizi-baldintzetara.	(*)	
Atal honetan aurrekontuari eta kofinantzaketari dagozkion <u>betekizunak</u>	(*)	
Proiektuaren jarraipena behar bezala egin ahal izateko sistema baten bermea izateko <u>betekizuna</u>	(*)	
Behar besteko informazioaren <u>betekizuna</u> (kuantifikatzea, sexu-generoaren arabeko datuak, kokalekua).	(*)	
1. Helburuak eta emaitza zehatzak: zerbitzuaren/jardueraren finkatzeari buruzkoak (efizientzia, eskuragarritasuna, diru-sarrerak eta beste)		8
2. Estrategia eta metodologia: jarduera zehatzak, teknologia eta beste alderdi metodologiko batzuk deskribatu behar dira; egikaritze-epeak.		12
3. Eragileen eta gaitasunen analisisa: eskubideen titularren eginkizunak eta gaitasunak deskribatu behar dira, bai eta haien betebeharrak, LTaren hornitzaileak eta beste eragile axolazko batzuk zeintzuk diren ere.		8
4. Aurrekontuaren egokitasuna eta xehetasun-maila		10
5. Formulazioaren kalitate teknikoa: argitasuna, koherentzia, egitura logikoa, zorroztasun teknikoa eta gehienezko hitz kopuruari egokitzea.		7
6. Laguntza teknikoaren bideragarritasuna eta egikaritzeko gaitasuna: estimazio errealistak, entitate egikaritzaillearen gaitasuna, esperientzia eta tokiko erakundeekiko koordinazioa.		5
C. IRAUNKORTASUNA		20



Betekizuna: nahikoa berme, proiektua bukatu ondoren zerbitzu edo ekimenak jarraipena izango duela	(*)		
1. Iraunkortasun teknikoa: jarraipena izateko neurri teknikoak; transferentzia-plana; mantentze-lanak; eragileen konpromisoa eta beste.		12	
2. Finantza-iraunkortasuna: LTaren osteko mantentze-lanen eta jardunaren inantzetaren analisisa (diru-sarrerak, langile/mantentze-lan kostuen estimazioa eta beste).		8	
D. ZEHARKAKO IKUSPEGIAK			10
Deialdirako ezinbestekoak:			
Eskubideen ikuspegiaren <u>betekizuna</u> .	(*)		
Genero-berdintasunaren arloko gutxieneko <u>betekizunak</u>	(*)		
Hiriko kolektibo edo entitateen inplikazioari dagokion <u>betekizuna</u>	(*)		
1. Eskubideen ikuspegia		3	
2. Genero berdintasuna: emakumeak ahalduzko ekintzak eta neurriak; genero-ikuspegia zeharkako ote den proiektuan.		4	
3. Gasteizen inplikazioa eta tokikoa-globala ikuspegia: Gasteizen egitekoak diren ekintzak, proiektuarekin zerikusia dutenak, edota trukeak, hiriko kolektiboen lankidetzak eta beste.		3	



6. eranskina: PT ataleko —proiektu txikiak— baremazio-taula.

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
1. LEKUAN BERTAKO AKTOREEN ANALISIA		22
a) Eskubideen titularrak	10	
Eskubideen titularren deskribapena eta partaidetza-maila (parte hartzen duen populazio barne). Behar besteko informazioaren betekizuna (kuantifikatzea, sexu-generoaren arabera datuak, kokalekua).	(*)	
Populazioaren baldintzak eta egoera (ahultasun-egoera, premia, antolakuntza)		
Unibertsaltasun-irizpidea (pertinente bada)		
b) Betebeharren titularrak	6	
Betebeharren titularren identifikazioa, zein paper jokatzeko duten testuinguruan eta proiektuan		
c) Beste aktore batzuk	6	
Betekizuna: harreman oso zuzena eta jarraitua izatea helmugako biztanleekin edo herriarekin Gasteizko kolektibo batek, dela entitate eskatzailea edo proiektuan parte hartze zuzena duen beste entitate bat.	(*)	
Eskatzailearen, bazkide lokalaren, entitate laguntzaileen, gaitasunen, populazioarekiko harremanen (esperientzia eta alde zuzeneko lankidetzak) eta besteren deskribapena		
Proiektuan izan litezkeen oposizio eta oztopoak		
2. DISEINUAREN KOHERENTZIA		34
Nahikoa informazioa, koherentzia eta bideragarritasuna	(*)	
Langile lokalei dagozkien betekizunak: Proiektuan diharduen pertsona bakoitzaren zereginak dokumentatu behar dira, baita jardueretan duen dedikazioaren ehunekoa ere bai.	(*)	
Emaitza zehatzak eta ukigarriak izatearen betekizuna.	(*)	
Atal honetan aurrekontuari eta kofinantzaketari dagozkion betekizunak	(*)	
Testuingurua eta deskribatzea eta beharrezkoak identifikatzea (esku hartuko den gunearen eta jardueraren sektorearen errealitatea, beharrezkoak, mugak eta beste analizatzea)	6	
Estrategiak eta metodologia	8	
Kalitate teknikoa (plangintza, kudeaketa)	10	
Aurrekontuaren xehetasuna eta egokitasuna	6	
Proiektuaren jarraipena egiteko sistema egokia	4	
3. BIDERAGARRITASUN ETA IRAUNKORTASUN OROKORRAK		24
Giza baliabideak: esperientzia eta egokitasuna	6	
Proiektuaren osagai tekniko eta teknologikoak (bidezko bada)	10	
Betekizuna: nahikoa berme, proiektua bukatu ondoren zerbitzu edo ekimenak jarraipena izango duela	(*)	8
4. ZEHARKAKO ALDERDIAK TXERTATZEA		18
a) Deialdirako ezinbestekoak		
Eskubideen ikuspegiaren betekizuna.	(*)	
Genero-berdintasunaren arloko gutxieneko betebeharrak	(*)	
Gasteizko kolektiboaren inplikazioa eta informazioa	(*)	
b) Genero-berdintasuna	8	
Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna, proiektuan		
c) Gasteiztarren inplikazioa	8	
Gauzatze-herrialdeko kolektiboaren ekintzak, Gasteizen, eta trukeak		
Esperientzia duten GGKEen lankidetzak, esperientzia gutxiago duten kolektibo txikiak		
d) Proiekturako pertinente diren beste batzuk	2	
Proiektuaren testuinguru lokalean pertinenteak diren zeharkako bestelako alderdiak		



7. eranskina: GDLB ataleko baremazio-taula (GDLB - giza eskubideen defendatzaileen larrialdiko babes))

Izartxo (*) batez markatutako kontzeptuetan betebeharra bete ez edo zero puntu lortuz gero, proiektua bazter geldituko da.

Proiektuak lehenesteko faktoreak (puntuazioa bider kopuru hori egingo da):	
Afrikan bideratzekoa bada	1,05

Irizpideak	Gehienez	
	100	100
A. Pertsona defendatzaileak eta entitate eskatzailea		20
1. Entitate eskatzailearen eta giza eskubidee pertsona defendatzailearen arteko harremana	8	
2. Giza eskubideen pertsona defendatzailearen eta/edo hura kide den organizazio edo kolektiboaren ibilbidea eta lana	10	
3. Giza eskubideen pertsona defendatzailearen lanaren eta/edo haren egoera mehatxatuaren onarpena	2	
B. Mehatxuaren urgentzia eta larritasuna		25
1. Betekizuna: Mehatxu larri eta berehalakoaren ebidentzia frogatua	(*)	
2. Testuinguruaren analisia eta pertsona defendatzailearentzako mehatxu larri eta berehalakoaren azalpen xehatua	10	
3. Pertsona defendatzailearen osotasun fisikoarentzako arriskuaren maila	10	
4. Arriskua handiagotzen duten faktoreak (haren nortasunarekin, bizi baldintzekin edo gizarte-testuinguruarekin zerikusia dutenak)	5	
C. NEURRIEN EGOKITASUNA ETA KALITATEA		22
Betekizuna: Egoera horretarako babes zuzeneko eta espezifikorako neurriak.	(*)	
5. Proposatutako babes-neurrien egokitasuna	5	
6. Arriskuaren balorazio eta neurrien diseinu pertsona defendatzailearekin batera eginak	5	
7. Neurri berehalakoak eta praktikoak izatea.	5	
8. Babes neurrietan genero-ikuspegi sektore artekoa sartzea	5	
9. Estatuko edo nazioarteko babes-mekanismoekiko koordinazioa	2	
D. GAITASUNA ETA IBILBIDEA (TOKIKO ENTITATEARENA ETA ENTITATE ESKATZAILEARENA)		23
Betekizuna: Aldez aurreko jarduera dokumentatua helmugako herrialdean	(*)	
Betekizuna: Aldez aurreko esperientzia pertsona defendatzaileak babesten	(*)	
10. Entitate eskatzaileak eta tokiko entitateak zer esperientzia duten arriskuan dauden populazioak eta pertsona defendatzaileak babesten	4	
11. Pertsona defendatzaileen larrialdiko babeserako zer mekanismo dituzten (protokoloak...) eta aldez aurretik zer esperientzia duten	7	
12. Entitateek zer gaitasun duten proposatutako neurriak egikaritzeko	8	
13. Pertsona defendatzaileak babesten aritzen diren beste organizazio eta/edo sare batzuekiko koordinazioa	4	
E. AURREKONTUA ETA EGIKARITZEKO EPEA		10
14. Agudo egikaritzeko gaitasuna (gehienez ere 6 hilabete).	5	
15. Aurrekontua nola egokitzen zaien proposatutako neurriei eta noraino den haiekin koherentea	5	



8. eranskina: Eraikuntza proiektuetarako bideragarritasun teknikoari buruzko dokumentazioa.

a) Proposatutako konponbidearen deskribapena eta/edo justifikazioa Lokaletako bakoitzaren destinoa edo erabilera; sektorea eta aurreikusitako erabiltzaile-kopurua.

b) Proposatutako eraikuntzen proiektu teknikoa, hauek barne hartzen dituen:

- Lursailaren urbanizazioari dagokionez:

- Lursailaren krokisa edo plano orokorra: dauden nahiz aurreikusten diren eraikuntza guztien kokalekua, horien arteko erlazioa eta distantziak, eta abar.
- Lursailak dituen zerbitzu- eta hornidura-sareak (edateko ura, saneamendua eta estolderia, argindar-hornikuntza).

- Eraikuntzari dagokionez, memoria, aurrekontua eta hauen planoak:

- Solairuko banaketa, bai zedarritua, bai "altzariz hornitua".
- Ohiko altxaerak.
- Eraikuntzaren krokisa edo sekzio-planoa (altuerak, sabai faltsuak, lurraren malda, estalkiak).
- Barruko iturgintza-sarearen eta ekipamendu sanitarioen (konketak, komunak, dutxak eta abar) krokisa edo planoak.
- Gorotz eta euri-uren saneamenduaren barruko sarearen edo putzu septikoen krokisa edo planoak.
- Aurreikusitako instalazio elektrikoaren krokisa edo planoak. Argi-puntuak, korrante-hartuneak eta abar.

Dosier bereizi batean aurkeztu beharko da dokumentazio hori; aukeran, behar bezala ordenatutako dokumentu bakarrean.



9. eranskina: Uraren eta saneamenduaren arloko proiektuetarako bideragarritasun teknikoaren dokumentazioa

Uraren arloko proiektuei buruzko dokumentazioak alderdi hauek jaso beharko ditu:

a) Hornikuntza-iturria. Baliabidearen eskuragarritasuna —nahiko ur, eta nahikoa kalitatekoa— egiaztatzen duten azterlanak edo dokumentazioa, hala nola

- Zehazten den populazioa kontuan izanik nahikoa ur izango dela bermatzen duten ur-emanen neurketa.
- Laborategiko entseguak, herrialdeko araudiaren arabera edo, haren ordeztuz, Espainiakoaren arabera —140/2013 Errege Dekretua— nahikoa kalitatea egiaztatzen dutenak.

b) Dokumentazio teknikoa:

- Oroitidazki teknikoa, proiektuaren deskribapen argi eta zehatzarekin.
- Oroitidazkiaren eranskinak, proiektuaren justifikazio teknikoaren euskarri: kalkulu hidrologiko, hidrauliko eta estrukturalak, uraren kalitatearen inguruko azterlanak eta abar.
- Proiektuaren definizioa zehazten duten planoak.
- Aurrekontua.
- Gauzatze-baldintzak zehazten dituen agiria.

c) Zerbitzuaren iraunkortasunaren justifikazioa:

- Kontsumoa kontrolatu eta neurtzeko sistemak.
- Ustiapen-kostuen kalkulua.
- Aurreikusitako tarifa eta diru-sarrerak.

Dosier bereizi batean aurkeztu beharko da dokumentazio hori; aukeran, behar bezala ordenatutako dokumentu bakarrean.



10. eranskina: Osagai ekonomikoa edo produktiboa duten proiektuen bideragarritasun ekonomikoari buruzko dokumentazioa

- a) Proiektuak aurreikusten duen produkzio-jardueraren xede den produkzioaren kuantifikazioa eta ezaugarriak.
- b) Proiektuaren xede den ekoizpen edo jarduera ekonomikoaren merkatu-azterketa, proiektuaren eremuan eta eragin-eremuan, eskaria, eskaintza, prezioak eta lehia barne.
- c) Proposatutako jardueraren errentagarritasun ekonomikoaren analisisa, kontuan hartuta kostuak, aurreikusitako diru-sarrerak eta jardueran parte hartzen duen populazioaren irabazi-marjinak.
- d) Komertzializazio-estrategien definizioa.